



Urtarrilaren 13ko manifestaziora joateko deialdia luzatu du Urnietako Sarek

2017ko abenduaren 15a, 547 zenbakia XIII. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

BILBOKO MANIFESTAZIORAKO DEIA

Eguberrietako hitzorduak prest dituzte Andoainen eta Urnietan



Oientzero eta Mari Domingi abenduaren 23an iritsiko dira Urnietara.



Andoaingo Eguberrietako haur parkea Allurralden ipiniko dute, hilaren 28an eta 29an.

Udalez gain, herriko hainbat eragilek ekitaldi ezberdinak antolatu dituzte.

Andoainen eta Urnietan egitarau oparoa iragarri dute, aurtengo Eguberrietarako. Udal ekimen sorta zabalari, herri ekimen ezberdinen ekitaldiak erantsi behar zaizkio. Herrian bertan gozatzeko aukera izan-

go da, beraz, asteburu honetan hasita. Andoainen ohiko bilakatu dira **Gazte Astea** eta **Ikus-zirkus** zikloak. Baita **Gabonetako haur parkea** ere. Aurtun, ordea, Allurralden ipintzen dituzten puzgarriak eta jolasak ez dira abenduko azken bi egunetan izango, abenduaren 28an eta 29an baizik.

Herri ekimenei dagokionez, **Iruberrik** urteurrena ospatuko du asteburu honetan. Eta **Ame-**

tsondoa elkarteak datorren abenduaren 23rako "Hazkuntza eta hezkuntza azoka" iragarri du. Gainerakoan, **Udal musika eskola**, **Soinuak** musika eskola edota **Etxeberrietako Jai Batzordea** Eguberriak girotzen ahaleginduko dira. Urteari amaiera emateko, **Lasterka Itzuli** ekimenak San Silbestre lasterketa antolatuko du. Lasterkariak moztortuta agertzeko deialdia egin dute.

Urnietan, datorren abenduaren 20an, Gabonetako argien piztuera ekitaldia egingo du **Salesiar ikastetxeak**. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da, Etxeberrieta plazan. Urteari amaiera ematen hasteko, **Zanpatuz** elkarteak abenduaren 29an gaueko mendi martxa antolatu du. Ekitaldi horiez gain, pailazoak edota **Aukeran** dantza konpainia Saroben iragarrita daude.

[GEHIGARRI BEREZIA]

Antzezlanaren Saroben, ostiral honetan

Ados Teatroaren eskutik, "Dublindarrak" ipuin laburren testuaren irakurketa dramatizatua eskainiko dute ostiralean 19:30etan, Saroben. Sarrera doakoa da. Aktore lanetan Aitor Beltran, Asier Hormaza, Asier Sota, Iñake Irastorza, Isidoro Fernandez, Klara Mendizabal, Lierni Fresnedo eta Naiara Arnedo arituko dira.

Aitortza ekitaldia euskara ahoan bizi direnei



Joakina Irizar.

Andoaingo Udalak, euskararen nazioarteko egunean, XX. mendeko belau-naldi oso baten ordezkartza zabala elkartu zuen Basteron, une hunkigarriak biziz. Ahotsak egitas-morako boluntarioak izan dira, iragan mendeko gizarte, ohitura eta kulturaren lekuko zuzenak.

[8-9. ORRIALDEAK]



Maria Angeles Belamendia.


Eskualdean bizi diren katalanen iritzia, hango hauteskundearen atarian



Laura Casals eta Xavi Arias Andoainen bizi den Kataluniako bikotea da.

Datorren abenduaren 21ean, Parlameta aukeratzeko hauteskunde erabakiorrak dituzte.

Aiurri astekaria Andoainen eta Urnietan bizi diren hainbat kataluniarrekin harremanetan jarri da, hango egoera politikoaz eta abenduaren 21eko hauteskundeaz ikuspegiak jaso as-



Xavi Forrolls eta Rosa Sanchez Urnietan bizi diren bi kataluniar dira.

moz. Rosa Sanchez eta Xavi Forrolls Urnietan bizi diren bi kataluniar dira. Oso kritiko dira Espainiak izan duen jokabidearekin. Andoainera iritsi berria da Xavi Arias eta Laura

Casals bikote gaztea. Nazio mailako hedabideen jokabidearekin kezka agertu dute, erre-alitatearen distortsioa eragiten ari baitira.

[ESKUALDEA, 2-4. ORRIALDEAK]

ELECCIONS 21D | HAUTESKUNDEAK KATALUNIAN

URNIETAN BIZI DIREN KATALUNIARRAK

Esperantza bai, fede handirik ez

Kataluniak egun bizi duen egoera agerikoa zela diote, jakina zela etorriko zela; nork eragin duen ere garbi dute: "Espainiako Justiziak eta agintariek".

Kataluniako politikariak goratzen dituzte, "behingoz herriari agindutakoa bete dutelako". Katalunia independente bat ezagutzeko fede handirik ez dute, ordea.

Andoni Urbistondoren elkarriketak

Abenduaren 21ari lotuta bizi dira Rosa Sanchez eta Xavi Forrolls, Urnietan bizi diren bi kataluniar. Abertzale independentistak biak. Oso kritiko dira Espainiak euren aberrian izan duen politika eta jarrerarekin, eta federik ez dute konponbide adostuan: "Ez dute nahi egoera konpondu, Kataluniak beste hainbat kontu estaltzen dituelako: monarkia, korrupzioa...". Kataluniako politikariak errespetatzen dituzte, "lehen aldiz herriak eskatu diena egin dutelako, Errepublika aldarrikatu". Eta abenduaren 22an zer? Garaipena, baino etsipena: "Independentismoak irabaziko du, baina ez da independentzia lortuko". "Ez da erraza zure jarrerari eustea kolpeak eta kartzelarekin zigortzen zaituztenean".

Rosa Sanchezek Kataluniako politikarien askatasuna aldarrikatzeko erabiltzen duten kolore horiarekin koloretu du bere ilea. Xavi Forrolls jo eta su ari da lanean Kiroldegiko tabernan, ostegunero legez, babarrunak eta sakramentu guztiak prestatzen. Katalunia jaioterrian abenduaren 22ko koadroa marrazteko eskatu die Aiurri-k. Astebate barru gertatuko denari erreparatu baino lehen, ordea, azken urteetan gertatutakoa gogoratu dute, "atzera begiratuta hobeto ulertzen baita egun dugun irudia".

Bikotearentzat ez baita ezustekoa izan jaioterrian gertatutakoa, independentzia sentimendua hain nabarmen handitu izana: "Agerikoa zen emango zen egoera zela", dio Rosa Sanchezek. Eta nabarmendu: "Hainbeste ezezko iritsi zaizkigu epaitegietatik, Espainiako Gobernutik, ba gizartea erradikalizatu egin dela. Egoera eraldatu duen faktore nagusia ezetzaren politika izan da". Nabardura egin du Xavi Forrolls-ek: "Orain ikusten dugun abertzaletasun sentimendu hori aspalditik dago hor. Nire aitona orain 30 urte hil zen, eta abertzaletasun hori hor zegoen. Azken urteetan biderkatu egin da, bai, baina sentimendua bazegoen. Muina zera da, abertzaletasun hori sentimendu bat dela, ez dela bat-batean agertu den zerbait. Bat-batean ez dira sortu 'orain independentistak izango gara' dioten milaka herritar. Ez, hori ez da horrela. Goizago edo geroago, egungo egoera etorri, etorriko zela jakina zen".



Xavi Forrolls jo eta su ari da lanean Kiroldegiko tabernan lanean. Rosa Sanchez ileapaintzailea da. Kataluniako politikarien askatasuna aldarrikatzeko erabiltzen duten kolore horiarekin koloretu du bere ilea.

"Jendeak poltsikoan 3.000 euro ditutenean ezin hobe bizi da, ez da beste kontuetaz hainbeste arduratzen, baina sosak falta zaizkionean bere buruari, lagunei eta politikariei galderakegiten hasten da"
Xavi Forrolls

Bilakaera horren arrastoren bat eman du ile apaintzaileak, baina gordin mintzatzen da azalpen gehixeago eskatuta: "Alderdi Popularraren errepresioak ekarri du egoera hau". Sukaldariak hartu du lekukoa: "Osagai gehiago daude. Krisia dago, lanik ez, politikariek ez zaituzte laguntzen, eta berehala mahai gainean jartzen da orain pil-pilean dagoen eztabaida: jasotzen duguna baino gehiago ordaintzen dugu. Nire ustez jendeak poltsikoan 3.000 euro ditutenean ezin hobe bizi da, ez da beste kontuetaz hainbeste arduratzen, baina sosak falta zaizkionean bere buruari, lagunei eta politikariei galderak egiten hasten da. Politikari horiek beti ez erantzuten badizute, egun dugun egoera errazago ulertzen da".

Espainiako Justizia eta agintarien jarrera eta erabakiak dituzte ahotan Rosak eta Xavik etengabe. Malgrat de Mar herrikoak alderaketa bitxia egin du, bere iritzia hobeto uler dadin: "Tratu txarren egoera batean pentsatu. Demagun Katalunia Espainiaren neska edo mutil lagun aberatsa dela, eta hori galdu baino, edozer gauza egiteko prest dagoela. Tratu txar horien adibide garbi lirateke urriaren 1eko kolpeak, edo politikarien kartzelaratzak". Hainbestetan entzuten den doktrinamendua dakar solasaldira Rosak: "Gai ekonomikoaz harago, kultura eta hizkuntza jazartzeko egin den politikak asko haserretu du abertzale jendea. Katalunia espainiar nahi zutela esan zuen publikoki Vert Espainiako Hezkuntza ministroak, eta horrek haserre handia eragin zuen. Zure nortasuneko euskarriei erasotzen dietenean normalean erreakzio bat gertatzea da, eta gertatu da".

Halako esan, ekimen, edo erabakiekin independentzia sentimendua hazi eta hazi besterik ez dela egin ikusita, ez da ulertzen erraza Espainiak politika horretan atzera ez egin izana, baina Xavik diada erantzuten du, uste hori desegiteko:

"Hainbeste ezezko iritsi zaizkigu epaitegietatik, Espainiako Gobernutik, ba gizartea erradikalizatu egin dela. Egoera eraldatu duen faktore nagusia ezetzaren politika izan da"

Rosa Sanchez

"Beraiei bost axola zaie. Gainditu ezin den muga gainditzeko dute euren Polizia kaleetara bidaliz, eta egurra ematen dute. Mundu guztiak ikusi du. Arazoaren muina hau da: norbera dena, edo sentitzen dena onartzea, errespetatzea. Norbait espainiarra dela, ba ados. Ni kataluniarra naiz. Espainiarra denak ni espainiar sentiarazi nahi nau, eta hor ez gara inoiz ados jarriko. Nik haiek errespetatzen ditut, baina haiek ni ez. Ni minduta, lotsatuta sentitzen naiz espainiarra naizela esaten didatenean. Eta ez daukat ezer Espainiaren aurka. Zaragozara edo beste nonbaitera bisitan joan eta herriko balkoi guztietan Espainiako banderak ikusteak ez nau haserretzen. Haserretzen nauena da nire herrian nire bandera jartzen ez uztea".

ELECCIONS 21D I HAUTESKUNDEAK KATALUNIAN

URNIETAN BIZI DIREN KATALUNIARRAK

"Nire ama Malagatik etorri zen, 6 urterekin. Independentista da. Pentsa! Beraiei galdetu beharko zaie zergatik egin diren independentista, baina agian bizi diren herriedo nazioarentzat irtenbide onena hori dela pentsatzen dutelako da, ezta?"
Xavi Forrolls

Berotu da, sukaldaria, eta arnasa hartu aurretik galdera pare bat jarri ditu mahai gainean: "Espainia herrialde federal bat izanen balitz ez litzateke halakorik gertatuko, baina ez dut uste horretarako batere borondaterik dutenik. Espainiako Gobernu baiezkoa ez dela aterako hain ziur badago, zergatik ez du galdeketa baimentzen? Konpondu nahi ez duten egoera delako eurentzat". Euskal Herrian gai jakin batzuekin beste batzuk estaltzea zer den ondo baino hobeto dakigula iritzi dio sukaldariak, "indarkeriaren kontuak monarkia, korrupzioa eta beste eguneroko agendatik atera zituen" esaldiarekin. Rosak baiezko keinua egin du, adostasuna erakutsi, eta berak ere, egunen batean, "norbaitek monarkia baten alde ote nagoen" galdetzea nahiko lukeela.

Espainiako komunikabideetan eten-gabe errepikatzen den beste mantra bat independentzia aldarrikapenak halako jendartearen haustura eragin duela da. Lehen aldiz, iritzi ezberdina dute Xavik eta Rosak. Xavi: "Ez. Ni Gironan egon nintzen bi aste atzera, eta han denak elkarrekin bizitzen ohituak gaude, ez gara elkarren artean borrokatzen. Arazoa politikoa da, ez soziala, gure artean liskarra sortu nahi badute ere". Rosa, ados, baina ñabardura batekin: "Egia da urriaren 1ean pasa zirenak pasa ostean, batzuen eta besteen jarrerak asko erradikalizatu direla. 24 urte eman nituen Katalunian, hona etorri aurretik, eta maila kulturallean, linguistikoa, normaltasuna erabatekoa izan da. Ez da arazorik egon".

ESPAINIAR SENTITZEN EZ DIREN BI MILIOI HERRITAR

Espainiatik erabat deskonektatu duen bi milioi kataluniar lagun daudela entzuten da. Egia ote da? Eta horiek guztiek independentista izaten jarraituko al dute, egurra jaso dezaketela jakitun? "Jakina! Igual diruarekin erosiko dituzu, edo bere sentimenduak bigarren maila batean utzi denbora batean, bere asmo politikoak gauzatzea oso zail ikusten duelako, baina Katalunia independiente batean sinesten duenak hala sinisten du orain, eta etorkizunean ere", dio sukaldariak. "Hemen gakoa errespetua da. Esan dut lehen ere: nik espainiarrak errespetatzen ditut, beraiek ni ez, ze botoa ematera joan eta egurra ematen dizute. Espainiar sentitzen direnek euren sentimenduak publikoki erakusten hasi dira orain, orain arte Espainiako banderarik ez zutenean etxean. Txinatarren dendara joaten dira korrika bizian, Espainiako banderak erosi eta euren bandera erakustera. Zergatik orain bai, eta orain arte ez?



Rosa Sanchez

49n urte ditu eta 25 urte daramatza dagoeneko Euskal Herrian. Ite apaintzailea da, eta Palloja herrikoa, Baix Llobregat eskualdekoa. Joera politikoz abertzale independentista.

Xavi Forrolls

36 urte ditu, eta 6 urte daramatza Euskal Herrian. Malgrat de Mar herrikoa da, Bartzelona probintziako Maresme eskualdekoa, eta sukaldaria da ogibidez. Abertzale independentista da.

Jendea mintzeko". Eszeptikoagoa da Rosa: "Badago jendea trenera igotzen dena, edo jaisten dena. Pertsona bakoitzaren mundua oso mundu pertsonala da...".

Bi milioi horietatik makina bat Espainiako beste eskualdeetatik joandako etorkinak dira. Independentzia gogoa argien erakusten dutenak, sarri. Zergatik ote? Forrolls: "Begira, nire ama Malagatik etorri zen, 6 urterekin. Independentista da. Pentsa! Beraiei galdetu beharko zaie zergatik egin diren independentista, baina agian bizi diren herri edo nazioarentzat irtenbide onena hori dela pentsatzen dutelako da, ezta?". Il-do beretik mintzatzen da Rosa: "Bizitza hobeago baten bila irten zirelako euren jaioterrietik, eta Katalunian babestuta sentitu zirelako, errespetatuak, laguntzeko prest zegoen jendarte topatu zuten".

Etorkinen kontuak baino gehiago haserretzen ditu Rosa eta Xavi, eskola umeei leporatzen zaien kontua. Alegia, Espainia eta gaztelaniera gorrotatzen erakusten den hezkuntza eskaintzen dela bertan: "Txorakeria galanta da. Ez da egia", dio Sanchezek. "Oso mingarria egiten zait, badakidalako gezurra dela. Gezur latza. Hazi egin dira, egoera erradikalizatu egin delako, eta normalak ez diren gauzak entzun behar dituzu". Azala eginagoa daukala erakusten du Forrolls-ek: "Niri bost axola, benetan. Egina nago, eta badakit edozertarako gai direla. Niretzat Espainian ikasketarik gabeko jende mordo dago, teledistan saltzen duten mezua goitik behera sinisten duena txintik esan gabe. Bestelakoan ez dut ulertzen nolatan PPK hain erraz irabazten dituen hauteskundeak. PPK badaki Kataluniako mezuarekin boto asko irabazten dituela Espainian, eta boterean betikotu nahi dutenez, ba ondo aztertutako estrategia bateko beste osagai bat da".

KOLPEAK ETA KARTZELARATZEAK

Euskal Herrian, zoritxarrez, nahiko ohikoa izan da Poliziaren jarrera borti-

tza hainbat manifestazio eta bestelako mobilizazioetan. Katalunian ere antzera jokatu zuten urriaren 1eko erreferendumean, baina Rosak eta Xavik ez zuten espero hain urrun iritsiko zirenik. Rosaren hitzak: "Ezta erotuta ere! Euskal Herrian gertuagotik jasan duzue Espainiako Justizia eta Poliziaren errepre-sioa, baina Katalunian ez da ekintza biolento bakar bat ere gertatu prozes guztian, eta halere egurra eman dute... Urriaren 1ean telebista aurrean nengoen, lasai-lasai, eta nire familiak Poliziaren kolpeak jaso zitzaizkela pentsatze hutsarekin amorratuta nengoen".

Esperantza handirik ere ez dute, egoera berriro ez errepikatzeko. Forrolls: "Ez dakit ba... Uste dut puntu honetara iritsita Europak zerbait esan edo egin beharko lukeela, baina ez du egin. Puigdemontek herriari Kataluniak Europan egon beharko lukeen edo ez galdetuko ziola adierazi zuen orain aste batzuk, eta ni berarekin ados nago. Nik baiezkoa emango nuen. Gosez hilko ginen, ziurrenik, edota hainbat hamarkadetan pobre izan eta arroza jan, baina libre izango ginatke, eta hori oso balore preziatua da niretzat". Botere ekonomikoak eta Espainiako agintariak eskutik hartuta doazela uste du Rosak, Europari buruz galdetuta.

Kolpe eta kartzelaratzeeen erantzukizuna Kataluniako politikariena dela dioten aurrean, kontrakoa irizten diote: "Begira, lehen aldia da nire bizitzan politikari bat bere hitza betetzen ikusten dudala. Kataluniako agintariak Errepublikan aldarrikatuko zutela agindu zioten herriari, eta hala egin zuten. Agindutakoa bete zuten, eta horregatik bakarrik, nire babes guztia dute. Ez al dira, ba, herriaren zerbitzari? Politikariak beti egin izan du nahi duena, herriaren borondateari muzin eginez. Errepublikan aldarrikapenarekin, ez!"

Errepublikan aldarrikatzea normala dela uste du Rosak, "155. artikuluari men ez egiteko aldarrikatu zuten, bestela 30 urteko kartzela zigorra jarriko

"Abenduaren 21eko hauteskundeetan, nire aurreikuspenen arabera, independentismoa nagusituko da, %55arekin. %35 bat konstituzionalistak, eta Podem-ek %10edo"
Rosa Sanchez

zietelako. 30 urte!". Euren babes osoa helarazten diote Carles Puigdemont presidenteari: "Noski, inolako zalantzarik gabe. Berak bere jardunaren berri eman dio munduari, eta hori egiteko modu bakarra atzerrira joatea zen, Bruselara. Katalunian geratu izan balitz badakigu non egongo zen orain". Rosaren esana da. Iritziarekin batera, iragarpena ere bai Forrolls-ek: "Niretzat Kataluniako president-a izango da abenduaren 22an. Nik Kataluniara bueltatzea nahi nuke".

Bueltatuko balitz, ordea, atxilotu egingo luketela dio ile apaintzaileak, baina ez dago ados sukaldaria: "Ez dut uste... ze hauteskunde izango dira, hautagai nagusia kartzelaratzen badute? Egin ditzatela hauteskunde batzuk non Arrimadas (C's), Iceta (PSC) eta Albiol (PP) bakarrik aurkezten diren! Atxilotzen badute independentista kopurua handituko da".

Zer gertatuko da datorren ostegunean? "Independentismoa nagusituko da, %55arekin. %35 bat konstituzionalistak, eta Podem-ek %10 edo". Rosaren iragarpena. Xavirena, honatx: "ERCK irabaziko du ziur. Eta independentistak elkartu egingo dira. Igual alderdi politiko independentistak legez kanpo uzten dituzte, berriro irabazten badute. Edozer egiteko gai dira". Kopuru horiekin zail dirudi, independentzia gauzatzeko moduko helburua izatea. "Hurrengo asteke hauteskundeek independentismoarekin baino demokraziarekin dute zerikusia... Zenbat denbora edukiko dute indarrean 155. artikulua? Beraiek ezin dute Katalunia Madrilatik gobernatu... Gehienera botere erakustaldia egingo dute, 'hemen gaude gu' esan, behin eta berriz".

Badago halako sentsazioa, non independentistak %65 edo %70 izan arte, independentzia gauzatzea ezinezkoa dela dioena. Ados al daude sentsazio horrekin? "Ez dakit ba... Ikusi egin behar batzuk eta besteek ematen dituzten urratsak... ez da erraza aurrera egitea, zu eta zure lagunak kolpatzen ari direla ikusten baduzu. Normalena atzera egitea da", dio Rosak. "Independentistek irabazten badute, berriro hasi beharko da bidea, bidea bukatzen den arte. Egunen batean alderen batetik lehertuko da prozesua, ezta? Europak ere egunen batean esango dio zerbait Espainiari!", Xavi Forrolls-en desioa.

Aurrera egin, belaunikatu inoiz ez, baina egitate bat, Forrolls-ek atsekabez botatakoa: "Emaitza bat edo beste izan, egunerokoa antzekoa izanen da, baina nik 36 urte ditut dagoeneko, eta ez dut uste Katalunia independiente bat eza-gutuko dudarik". Rosak 49 ditu, eta ixilik geratu da. Isiltasun konplizea.

ELECCIONS 21D | HAUTESKUNDEAK KATALUNIAN

ANDOAINEN BIZI DIREN KATALUNIARRAK

Manresa utzi eta Andoainera etorritako bikotea

Xavi Arias eta Laura Casals gazteek hilabete pare bat besterik ez daramate Andoainen bizitzen. Kataluniatik etorri berri dira, eta nolaz ez, jendeak euren jaioterrian gertatzen ari denaz galdera egi-

ten die: “Ohartu gara Kataluniatik kanpo badagoela jendea egoera ulertzen ahalegintzen ari dena, komunikabide handietatik igortzen zaizkion mezu interesatuekin mesfidati agertzen dena”.

Katalunian bertan jaioak zarete? Azken aldian maiz azpimarratzen den kontua da kataluniarren jaioterriarena.

Laura Casals: Manresakoak gara biok. Ni bertan jaioa naiz, baina nire familia guztia.

Xavi Arias: Ni Zaragozan jaio nintzen, baina urtebeterekin Kataluniara eramant ninduten bizitzera. Familian estatuko leku askotako kideak dauzkatz.

Charnego ezizena ere hitzetik hortzera dabil...

X.A.: Ez dakit nire burua halakotzat jo beharko ote nukeen. Estatuko beste lurraldeetatik Kataluniara emigratzen zutenei deitzen zitzairen horrela lehen. Intentzio gutxieslea zeukan, baina azken aldian, Gabriel Rufian politikoari eta beste batzuei esker, harrotasuneko konnotazioa hartu du. Emigranteak eta gaztelaniako hiztunak izanik, katalanistak sentitzen diren pertsonak dabilite batez ere.

Zer dela eta Andoain hautatu duzue bizitzeko?

L.C.: Nire “errua” izan da, eta abentura honetan Xavik nire ondoan egotea erabaki du, maitasunak bultzatu du horretara. Biolin jotzailea naiz, Liceun ikasi nuen, baina musika ikasketekin ezin nuen jarraitu, hemengo Musikenen lortu nuen tokia ikasteko. Katalunian hurrei biolina irakasten nien, eta utzi behar izan nuen lanpostu hori. Euskadiko Orkestrarekin Euskal Herriko zenbait hiriburuetan kontzertuetan parte hartzeko aukera eduki dut oraingoz, eta oso pozik nago.

X.A.: Donostian pisuren ba topatzea pentsatu genuen, baina benetan garesti dago! Manresarekin alderatuz gero, bai, behintzat. Gertuko herrietan begiratzen hasi, eta Andoainen ikusi genuen modu egokia. Garraio publikoak oso ondo funtzionatzen du eskualde honetan behintzat.

Gainera, hona iritsi eta agudo lana topatu nuen Lasarten. Pozik gaude Andoainen.

Nolako jendea iruditu zaizue hemengoa?

L.C.: Ez digu denbora askorik eman giza harremanak lantzeko, baina herria lasaia eta jendea jatorra eta atsegina dela iruditzen zaigu. Ez daukagu kexatzeko arrazoirik hemen..., ez bada eguraldi euritsuagatik.



Laura Casals eta Xavi Arias Manresatik Andoainera etorritako bikotea.

Euskara ikasten hasi omen zara zu, Xavi...

X.A.: Andoaingo AEKn hasi naiz. Oso gogorra egiten ari zait hizkuntza arrotza baitzait, eta Jaione irakasleak pazientzia beharko du nirekin. Argeliarak, marokoarrak, estatuko leku askotatik etorritakoak..., denetik bildu gara gelan, eta sozializatzeko leku ezin aproposagoa iruditzen zait. Ez daukat tituluen presiorik, eta gustura joaten naiz ikastera. Egia esanda, hona etorri ginenetik premiazkoa ikusi nuen bertako hizkuntza ikastea, edo saiatzea behinik behin. Herri honen kultura, izaera... ezagutzeko ezinbesteko zat bat daukat hizkuntzan sakontzea.

Honezkero, makina bat bider galdetuko zizuten zer arraio gertatzen ari den Katalunian...

L.C.: Jendeak badauka jakin mina Kataluniarekin, eta batzuek harridura sentitzen dute “benetako katalan bat” topatu dutelako, telebistan hainbeste agertzen ari diren horietako bat alegia. Gehien inpaktatzen gaituen galdera zera da, ea benetakoa ote den independentziaren aldeko sentimendua.

X.A.: Informazio zuzena lortzeko modurik onena bertako bati galdetzea da. Izan ere, izugarrizko bonbardaketa indiskriminatu ari gara jasaten komunikabideetatik, eta ia beti alde beretik

eta ideologia zehatz batetik datorkiguna da.

Hemen, gehienbat Madrildik datozen iturrietatik jasotzen dugu Kataluniari buruzko informazioa...

X.A.: Beldurra ematen digu errealitatea ikuspegi bakar horretatik ikusteak. Jakina, guk ere, esatera batera, LaSexta pizten dugu, baina baita ere TV3. Edonori aholkatuko genioke kontrastearen ariketa egin dezan; ez da erraza hizkuntzaren traba egon litekeelako tartean, baina merezi du ahaleginak. Irakurri, entzun eta ikusi dezala denetik, baina jakinda nor bere ideologiatik ari dela interpretatzen errealitatea. Soilik Madrildik datorrenari egiten badiogu kasu, jai dugu. Kataluniakoak gara eta ondotox dakigu, maiz, zer nolako mezu estereotipatuak zabaltzen dituzten eta gertakizun anekdotikoak nola gaindimentsionatzen dituzten errealitatea desitxuratuz. Era horretan, ez zaigu batere harrigarria egiten Espainiako lurralde askotan kataluniarren aurka-ko sentimendua handitzea.

Bikote, familia eta lagunen artean Katalunia oso polarizatua dagoen gizartea dela adierazten zaigu. ...

X.A. Zabaldu dituzten gezur handi horietako bat da. Benetan bikoteak, familiak eta adiskideak haserretzen ba-

dira, lehendik ere horien artean harremanak txarrak zirelako izango da, ez orain politikak eraginda. Guk pentsamendu ezberdineko lagunak dauzkagu, baina inoiz ez gara etsaitu inorekin. Jakitun gara nork bereari eutsiko diola, eta alferrik ari garela besteari iritziz aldarazi nahi badiogu.

Independentistek Espainia gorrotatzen dutela ere esaten dute, baina gauza ez da horrela. Izatekotan ere, Espainiako gobernuarekin dago ezinikusia.

Politikari independentistek Kataluniako gizartearen erdia galbidera eraman duten mezua iristen ari zaigu...

X.A.: Gutxietsi egiten dute Kataluniako gizartea. Ez Katalunian ezta Euskal Herrian ere estatuko bipartidismorik ez du existitzen, eta horrek zer edo zer esan nahiko du! Katalunian gizarte sektore handi batean nazio sentimendua beti egon da errotuta. Ez dut ukatuko politikariren batek une jakiren batean errealitate aprobetxatu nahi izana, baina independentziaren aldeko gizarte mugimendua manipulatu dagoela esaten duenak ez du Katalunia ezagutzen.

Orain urte batzuk Estatut-aren garaietan, Madrilgo gobernuak ezinegon hori baretzeko erraza zaukan, baina muzin egin zion. Orduan Kataluniako gizartea gutxietsi izanak ekarri du egungo kaosa. Hitzarmen fiskalaren aldeko hotsak entzuten dira orain, bada, jada nahiko berandu dabilta.

Zer iruditzen zaizue Euskal Herrian azken aldian egin diren prozesuaren eta Kataluniako Errepublikaren aldeko bilkurak, udal mozioak...

L.C.: Ongietorriak dira. Horiei esker ohartzen zara Kataluniatik kanpo badagoela jendea egoera ulertzen ahalegintzen ari dena, eta komunikabide handietatik igortzen zaizkion mezu interesatuekin mesfidati agertzen dena.

Galdera potoloa: zein behar luke izan irtenbidea zuen uztez?

X.A.: Bi alde edo posizioak hitz egin behar lukete, eta gizarteak erabakitze-ko erreferenduma hitzartu. Hori bai, baiezkoaren eta ezezkoaren aukerak, batak zein besteak zein ondorioak ekarriko lituzketen ondo azaldu beharko litzaioke gizarteari, baldintza beretan azaldu ere.



Bertako enpresako hainbat teknikari, mantentze lanetarako erabiltzen dituzten autoekin.

Bertako igogailuak: mantentze-lan profesionalaren aldeko apustua

Ospakizunetan daude Bertako enpresan. Hiru urte beteko dituzte laster, eta badute zer ospatu: Euskal Herrian mantentze-lanak egiten dituzten enpresen artean gehien hazi dena da. Bizilagunen komunitate askok erabakitzen dute mantentze-lan enpresa aldatzea eta Bertakoren aldeko apustua egitea. Urtean, batez beste, 200 komunitatek egiten dute 10-15 urte arteko eskarmentua duten teknikarien aldeko hautua..

Hori da, gainera, Bertakok duen baliorik handiena: teknikariak. Eurek sortutako enpresa da. Beste leku batzuetan lanean jardun eta hango baliabideak ikusita, enpresa berria sortzeko erabakia hartu zuten pertsonak. Teknikari horiek 24 orduko zerbitzu erreala ematen dute; hau da, larrialdietan ba-

karrik barik, abisu guztiak kontrolatzen eta premiak betetzen dituzte, astelehenetik igandera, 24 orduz eta urteko 365 egunetan. Dena den, eguneroko lan onari esker, egiten duten mantentze-lan onari esker, matxurengatik jasotako abisuak oso gutxi dira. Teknikariek egiten duten lan onak, gerora dauden abisuen kopurua txikitu egiten du, nabarmen.

EUSKARAREN GARRANTZIA

Bertakok duen beste balio garrantzitsu bat euskararen erabilera da. Lehen momentutik euskaraz jarduten dute: aurrekontuak egiterakoak, komertzialen bisitatan, administrazioakoekin berba egiterakoan, kontratuak idazterakoan... Asko eta ondo baloratzen dute bezeroek euskararen erabilera.

Eta behin Bertako aukeratu ostean, bezeroek askatasun osoa dute nahi dutenean kontratua eteteko. Kontratu libreak egiten dituzte. Urtebetekoak. Bezeroak engainatu barik eta iraupen-konpromiso barik.

Ia hiru urteko ibilbidean, bezero askok Bertako aukeratu dute eskaintzen dituen tarifengatik. Oinarrizko kontratua hileko 80 euro ingurukoa da eta arrisku orotakoa, hileko 100ekoa. "Prezio logikoak dira. Ez da normala Euskal Herriko enpresa batzuek 160 euro kobratzea arrisku orotako zerbitzuarengatik eta inguruko eskualdeetan prezio hau ia erdira jaistea, bertan ditugun enpresa askok gure tarifa merkeagoak erabiltzen dituzte. Hori bai, Euskal Herri inguruan ditugun eskualdeetan", diote enpresakoek.

LARRIALDI ZERBITZUA

Ia hiru urteko ibilbidea laburra da, baina nahikoa izan da lortu arrakastatsuetara heltzeko: bezero guztiek dute igogailuaren larrialdi sistema telefonoetara lotuta eta guztiek dituzte LED argiak. Argi kontsumoa murrizteko automatikoki itzaltzen diren argiak, alegia.

Duela ia hiru urte sortutako enpresa izanda ere, bere zabal-kundea itzela izan da beste bailara eta lurralde batzuetara.

Gipuzkoan, Arrasaten eta Anoetan biltegiak ditu Bertako enpresak. Hori horrela, ematen duten zerbitzua oso azkarrak da, profesionala eta gertukoa.

945-90 34 50 telefonoan eska daiteke informazioa eta aurrekontua. Beti ere, lehen berba euskaraz jasota.

Hobekuntza teknologikoak igogailu zaharretan

- 1 Telefono zaharretako instalazioak berritzen dituzte. Hori horrela, uneoro daude kontaktuan bezeroekin. Berehalako erantzuna ematen diete abisuei eta ezustekoei.
- 2 Igogailua modernizatzeko aukera ematen dute. Aukera ematen duten maniobretan igogailuak monitorizatuta dituzte.
- 3 Igogailu zaharrak modernizatzeko eta berritzeko elektronika osoa eta motorra aldatzen dituzte. Era berean, ordaintzeko erraztasunak ematen ditu Bertakok. Igogailu batek arazo asko dituenean, ezinbestekoa da elektronikari zati osoa aldatzea.

Eskaintzen ditugun zerbitzuak, hilean 100 eurotik aurrera

- 24 orduko zerbitzua abisu guztientzat.
- Pieza guztiak barne, orotariko zerbitzuan.
- Iraupen-konpromiso gabeko kontratua.
- Larrialdi telefonoa doan, instalazio guztietan.
- Bakarrik itzaltzen diren LED argien instalazioa doan.
- Efizientzia energetikoan oinarritutako ikuskapena.

ANDOAINGO ETA URNIETAKO EKINTZAILEEI ZUZENDUTAKO DEIALDIA

Ekintzailtza sustatzeko programa

Ekintzailtza sozial kooperatiboa eta ekonomia soziala sustatzeko programa da eskualdean abian jarriko dutena, datorren urtarrilaren 17an.

Izen-ematea irekita dago, eta Gipuzkoa osoko proiektuek dute izena emateko aukera. Ekintzailtza eduki sozial, kooperatibo eta eraldatzailea eman nahi diote.

KoopFabrika ekintzailtza sozialerako programa da. 2015ean Kooperatzen izena zuen eta 2017an egungo ereduaren lehen aldiz eskaini da. Eskualdean hainbat sektoretako hamar proiektu ingururen sorreran eta kontsolidazioan bidelaguntza eskaini ondoren, 2018ko izen-ematea irekita dago.

Ekintzailtza eduki sozial, kooperatibo eta eraldatzailea eman nahi dio KoopFabrikak, tokian tokiko sareen garrantzia abiapuntu hartuta. Horretarako, hiru profiletako jendeari zuzentzen zaio programa:

PROIEKTU EDO IDEIAREN BAT LANTZEN EDO MARTXAN JARRI NAHIAN DIRENEI

- Orain arte elkarte forman jardunean aritu arren, profesionalizatu edo beste era batera antolatu nahi duten taldeei.
- Enpresen baitako barne-ekintzailtza proiektuei dimentsio sozialetik ekiteko asmoa dutenei.

- Formakuntzan arlo teoriko komuna lantzeaz gain, ekintzailtza sozialerako tresnen erabilpenean trebatu, eta KoopFabrikatik irtendako proiektuei tutoretza eskainiko zaie.

ELKARRIZKETA FASEA

Programan parte hartzea doakoa da, baina plaza mugatuak daude. Datozen asteetan parte-hartzaileekin elkarrizketa fasea irekiko da. KoopFabrikak dei



egin nahi die proiektu bat elkarlanean garatu nahi duten pertsona, talde edo enpresei formazio eta saretzerako tresna izan nahi duen KoopFabrikan izen ematera koopfabrika.eus webgunean.

SUSTATZAILEAK

Proiektua LANKI Ikertegia eta Olatukoop Interkooperazioa eta Ekonomia Sozial Eraldatzailea sustatzeko sarearen elkarlanetik sortu da. Beterri-Buruntzan, Olatukoop sareko kooperatibek dinamizatutako lurren nodoa. Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatutako egitasmoak Beterri-Buruntza Udalaren babesari izango du, besteak beste.

Interesatuak Twitter, Facebook eta Instagramen izango dute proiektuaren egunerokoaren berri.


Informazio gehiago:

komunikazioa@koopfabrika.eus
688 845 940 / 943 25 63 47 (Andoni Egia).

IKUSBERA

HAUR ALDIZKARIA

Aiurrirekin batera.



Harpidedun izatearen abantailak

2017, abendua



Gabonetako loteriarik onena



Helburu solidarioarekin merkaturatuko den garagardoa, “Olajaun Amayluna” izenekoa

EHUNDIK GORA ARTISAU GARAGARDO DASTATZEKO AUKERA DAGO ANDOAINGO ZUMEA KALEKO OLAJAUNA TABERNAN. GABONETAN GARAGARDO BERRI BATEKIN DATOZ. IBAN KORROTXANOK EMAN DIGU GUZTIAREN BERRI.

“Olajaun Amayluna” izeneko artisau garagardo berria dastatzeko aukera egongo da Eguberri hauetan, Olajauna tabernan. Merkaturatzen duten laugarren garagardoa izango da.

Gipuzkoan artisau garagardo aukera eskaintzen lehenengotakoak izan zarete. Nola-koa izan da sortze prozesua?

2013an hasi ginen artisau garagardoen munduan murgiltzen, eta geroztik taberna gehiago hasi dira artisau garagardoak eskaintzen, Donosti inguruan batez ere. Baina baita Lasarten eta Goierri ere. 2016. urtetik aurrera gure errezeta propioa ekoizten hasi ginen Iruñeko garagardotegi txiki batean. Egun hiru ezberdin ditugu, eta Eguberrietarako berri bat aterako dugu.

Zer dela eta joera hori?

Garagardozeak gara, aspaldidanik. Belgikara egindako bidaian, artisau garagardoen mundua sakonago ezagutzeko aukera izan genuen. Beranduago iritsi zen Olajauna, eta egun guztiz murgilduta gaude artisau garagardoen munduan.

Nondik ekartzen dituzue osagaiak garagardoa egiteko?

Iruñeko fabrika batean ekoizten da gure garagardoa, baina osagaiak atzeritik ekartzen dira. Belgika, Alemania eta Frantzia dira garagar ekoizle nagusiak. Kalitatezko produktuekin egiten da artisau garagardoa, eta hemen ez dago kalitatezko osagirik. Ez gara ekoizleak, baina loteak egiten ditugu gure izenean gure garagardo propioak saltzeko. Gure garagardoez gain, ehun garagardo erreferentzia inguru ditugu tabernan.

Eskaintza berri batekin zatotze gabonetan, kontaiguzu...

Orain arte egindako hiru garagardoak estilo oso ezberdinekoak dira. Oraingoa



Alejandro Ugalde eta Iban Korrotxano gazteak.

Hoppy Lager estiloko garagardoa da, edateko erraza. Garagardoa jada egina dago, ontzen ari da. Abenduaren amaierarako dastatzeko aukera egongo da.

Nolako harrera du artisau garagardoak?

Gu hasi ginenean Euskal Herri mailan 14 garagardotegi fabrika zeuden. Egun, 67 inguru daude. Mundu mailan ebolu-



Garagardo bereziak, Andoaindik bertatik mundura.

zioa ikaragarria izan da, baita Euskal Herrian eta Katalunian ere. 90eko hamarkadan Amerikako Estatu Batuetan izan zen boom modukoa gertatuko dela-koan nago. Gu hasi ginenean jendeak ez zekien oraindik zer zen artisau garagardoa. Orain ehun garagardo erreferentzia inguru ditugu eta denak saltzen dira. Sei garagardo iturri ditugu, eta astero berriren bat sartzen dugu.

Zein adin tartek kontsumitu ohi du etxean egindako garagardoa?

Adin tartea oso zabala da, 20-60 urte tartekoa. Jende gaztea ere garagardo horiek edaten hasi da, nahiz eta ez diren hain merkeak. Udan garagardo arinak eta freskoak nahi dituzte, eta negu partean, berri, tostata edota beltza saltzen da gehiago.

Garagardo berriaren irabazien zati bat “Juneren Hegoak” proiektura bideratuko duzuela entzun dugu.

Aurten zoritxarrez nire izeba joan zaigu. Omenaldi moduan zerbait berezia egin nahi genuen, eta guk ere garagardo errezeta berri bat aterako dugunez, etiketaren diseinua lehengusinarene esku uztea erabaki dugu, bera izan baita izebaren eskutik diseinuak egiten aritu dena “Amayluna” proiektuan. Aspalditik genuen buruan garagardoarekin lortutako irabazien zati bat kausa on batera bideratzea. “Juneren Hegoak” proiektuaren berri jakin genuen ezagun batzuren birtatez, eta kontsumitzen den garagardo berri horren litro bakoitzeko euro bat eurei ematea da asmoa.

Tabernaz gain, non kontsumitu daiteke “Olajauna” artisau garagardoa?

Gure tabernan eta hemen inguruko beste taberna batzuetan egongo da dastatzeko aukera. Xaxa batzuk kanpora salduko ditugu, Tafallara edota Iruñeara.

arruti

Zumea 18
Andoain
943 59 37 77

Eguberri eta Urteberri on!

Hango eta hemengo gabon kantak

ANDALUZIA, EXTREMADURA, GALIZIA, ARAGOI ETA EUSKAL HERRIKO GABON KANTEKIN OSATURIKO EMANALDIA ESKAINI ZUTEN IGANDEAN BASTERON, TRIANA ELKARTEAK ANTOLATUTA. EGUBERRIETAKO IZPIRITUAN MURGILTZEKO EKITALDIA IZAN ZEN.



Alberto Agirre eta Olagain Udal Txistularien elkarteak elkarrekin aritu ziren, Oiartzabalen zuzendaritzapean.

Abesbatza eta musika talde ugari hurbildu zen joan zen igandean Andoainera, tradizio ezberdinetatik datozen Gabon kantak eskaintzera: **Galiziako Etxea** (Donostia), **Monfrague Extremadurako Etxea** (Errenteria), **Aragoiko Etxea** (Donostia), **Extremadurako La Jara Etxea** (Tolosa), **Semblante Andaluz**

(Lasarte-Oria) eta **Extremadurako Etxea** (Donostia). Horiekin batera, Andoaingo musika taldeak: **Triana**, **Alberto Agirre** eta **Olagain Udal Txistularien elkarteak**. Alberto Agirre eta Olagain taldeek elkarrekin jardun zuten, euskal kantutegiko zenbait abesti uztartuz; **Joxe Mari Oiartzabalek**



Triana elkarteko hainbat kide Basteroko emanaldian.

zuzendu zituen bi taldeak. Bi ordu eta erdiko iraupena izan zuen jaialdiak, **Joxe Ramon Berrondo** herriko musikariak aurkeztuta. Kontzertua amaiturik, oroigarriak banatu zituen Triana elkarteak bere lehendakari **Marian Valorren** eskutik. Parte hartu zuten bederatzi taldeei ez ezik, **Esti Mujika** Ando-

aingo Udaleko Kultur ordezkariari, Gipuzkoako Etxe Erregionalen elkarteetako kideei eta Joxe Ramon Berrondo jaialdiko aurkezleari ere. Antolaketan buru belarri jardun duen **Luis Gil** Triana elkarteko kideak eskertza berezia jaso zuen. [Argazkiak, bideoak: Aiurri.eus]

Egunean eta Urte osoan!

Andoain bizi! '17

Abenduak 16, larunbata
EGUBERRIEN ATARIKO FESTA
11:00-14:00 Gabonetako ekitaldia: "Etorkizunerako Bidean, La Salle Berrozpe zuekin". Zumea plazan.
11:30-13:30 Kale animazioa txarangarekin.
19:00-22:30 Gabonetako festa: La Sallean jolastokian, Izartxok antolatua.

Abenduak 21, osteguna
San Tomas Egunean, Txistorra postuak jartzeko aukera Juanita Alkain plazan. Eskerak egiteko epea abenduaren 14ra arte zabalik.

Abenduak 22, ostirala
18:00 Andoaingo Udal Musika Eskolako tailerreko ikasleek Gabonetako kontzertua Basteron.

Abenduak 23, larunbata
12:30 Soinuak musika eskolako ikasleek Gabonetako kontzertua Basteron.
17:30 Olentzero, gaztaina erreak, txokolatada eta opariak Etxeberrieta plazan, auzoko jai-batzordeak antolatua.

Abenduak 24, igandea
Olentzero eta Mari Domingiri harrera, Aita Larramendi Ikastolak antolatua:
17:30 Irteera Basteroko plazatik.
18:30 Etorrera Espigolan.

Abenduak 26-29
GAZTE ASTEA. Ekitaldi sorta herrigunean.

Abenduak 26-30
IKUSZIRKUS. 20:00 Bastero kulturunean.

Abenduak 28, osteguna
11:00-14:00 / 16:00-20:00 Gabonetako Haur Parkea Allurralden.

Abenduak 29, ostirala
11:00-14:00 Haur Parkea Allurralden.

Abenduak 30, larunbata
11:30-13:30 Gaztaina erreak Juanita Alkain plazatxoan, Urkik antolatuta.
18:00-21:00 Bertso potepa eta trikitixa.

Abenduak 31, igandea
11:00-13:00 Kale animazioa txistulariekin.
11:30 San Silvestre lasterketa Zumea plazan.
12:00-13:30 Pajeen Irteera Errege Magoei zuzendutako eskutitzak jasotzeko. Ibilbidea: Goikoplaza -Bastero- Kale Nagusia- Zumea Plaza-Larramendi kalea. La Salle Berrozpe ikastetxeak antolatua.
00:45-04:00 Urteaz gaueko DJ festa Nafarroa plazan.

Urtarrilak 5, ostirala
Errege Magoen etorrera, La Salle Berrozpe ikastetxeak antolatua:
18:30 Zumea plaza. 19:30 Goikoplaza. Salkinen Eguberrietako kanpaina: Gabonetako 45 sorta irabazteko aukera. Parte hartzeko azken eguna.

Egin itzazu erosketak herrian

Web: www.andoain.eus
Facebook: [andoaingo.udala](https://www.facebook.com/andoaingo.udala)
Twitter: [AndoaingoUdala](https://twitter.com/AndoaingoUdala)
Youtube: [AndoaingoUdala](https://www.youtube.com/andoaingoUdala)

Laguntzaileak:

Jaiotza ikusgarria

ELBARRENAKO ARANTZAZUKO AMAREN ELIZAN JAIOTZA IKUSGARRIA IPINI DU LUIS UGARTE ZIZURKILDARRAK.



Lusek gogotsu erakutsiko die bere jaiotza, gogoa eta interesa erakusten duten guztiei.

Euskal Herriko ohitura zaharrak bil-tzen ditu jaiotzak, mugimendu eta guzti gainera. Aspaldi jaio zen Luisen zaletasun hori. Tokadisko zahar baten motorrarekin sortu zion mugimendua ikusgai jarri zuen lehendabiziko jaiotzari eta geroztik, handituz eta aberastuz joan da jaiotza ikusgarria. Hamabost metro pasatxo ditu luzeran, dagoeneko, Arantzazuko Amaren elizan jarritako jaiotzak. Bertan egongo da ikusgai, Erregeak pasa arte.

AMASA-VILLABONAKO KUTXATIK ELBARRENAKO ELIZARA

Martxoa inguruan hasi ohi da urte horretan jarriko duen jaiotza osatzen. Urtero-urtero berrikuntzak egiten dizkio, pertsonaia eta pasarte berriak irudikatuz. Aurtengo berrikuntzen artean, aizkolari baten irudia sortu du Luisek, enbor handia ebakitzen. “Olentzero ere jarri dut aurtengo jaiotzan, aldian aldian zatotik trago-txoa eginez. Astoa du aldamenean, asto-sestoan ikatza duela”, azaldu du. “Basoan zuhaitza botatzen ari den mutila ere sartu du. Mugimendu ezberdina eman behar zaio irudi horri, ez baita bertin aizkora goitik behera ibiltzea, edo horizontalean mugitu beharra izatea”. Maiatza inguruan

amaituta izaten ditu pertsonaia berriak, eta urte amaiera gerturatzen den heinean, errebaso orokorra egiten die irudi guztiei. “Jaiotzako irudiak egurrezkoak dira, eta ibilian-ibilian, ohikoa da piezaren bat puskatzea. Jarrita dagoen bitartean, egunero aritzen naiz konponketa txikiak egiten”, azaldu du.

Amasa-Villabonako Kutxaren erakuslehoian jarri ohi zuen Luisek bere jaiotza, baina eraberritze lanak egin zituztenean, erakuslehoia kendu, eta bulegoak jarri zituzten. Zizurkilgo elizan jartzen du geroztik. Dagoeneko jarrita dago, eta igande eguerditan eta meza ondorenetan izaten da hura ikusteko aukera, 12:30etan.

Elizako ateak zabalik uzten dituzte, nahi duen orok Luisen lanarekin goza dezan. Ordutegi horretatik kanpora ere, Luisek gogotsu erakutsiko die bere jaiotza, gogoa eta interesa erakusten duten guztiei. Horretarako, 943 691 164 telefono zenbakira deitu behar da, Luisekin hitzordua zehazteko.

Urtero, herriko zenbait ikastetxetako haurrak eta Fraisoroko aiton-amonak izaten ditu bisitan eta gainerako herrikide eta taldeei ere luzatu nahi die Luisek bere lana ikusteko gonbita.

Pebet txapelketa

ASTEBURU HONETAN FINAL LAURDENAK, ETA DATORRENEAN FINALAURREKOAK VILLABONAKO BEAR ZANA PILOTALEKUAN.



Partida erabakiorrak jokatu dira hurrengo bi asteburuetan.

VI Antton Pebet txapelketako finalaurrekoak nork jokatu dituzten asteburu honetan argituko da. Abenduaren 15ean, 19:00etan hasita, final laurdene-tako bi partida jokatu dira Villabonako Bear Zana pilotalekuan, eta bertan erabakiko dira abenduaren 23ko finalerdiak. Partida horien aurretik, gainera, Behar Zanak **Eñaut Aranburu** infantilak Gipuzkoako lau eta erdiko txapelketako ekialdeko final laurdenekoak jokatu ditu buruz-buru, 18:15ean hasita.

ASTEBURU HONETAKO PARTIDAK

Lehen partidari, bikote berria sartuko da txapelketan. Aukera bikaina dute beraz, **Ioritz Egiguren** Tolosako aurrelari gazteak eta **Markel Lizeaga** hernaniar atzelari indartsuak. Beraien aurkariak **Arrieta** hernaniarra eta **Zezeaga** bergararra izango dira. Azken hauek, 22-8ko emaitzaz erraz irabazi zuten beraien final zortzireneko partida. Partida irekia eta erakargarria izango da lehena.

Bigarren partida ez da nolanahikoa izango. Aurrean bi pilotari elektriko eta bizik jokatu dute. **Exposito** astigarra-garra eta **Telletxea** Albizturkoa. Biek badakite zer den Antton Pebet oroimenezkoan jokatzeko. Pilotari oso arriskutsua da Exposito. Telletxeak ere ezker bikaina du eta maila ederrean jarraitzen du, azken hilabeteetan bezalaxe.

Prieto bizkaitarra eta **Mariezkuarena II** nafarra izango dituzte aurkari. Prietok, **Eneko Labaka** ordezkatuko du. Aurrelari azkarra da, aireko jokoa oso ongi menperatzen duena eta tantoa azkar bukatzea gustuko duena. Atzean, Mariezkurrena II, bi beso luzedun etorkizun handiko atzelaria. Pilota oso egoki luzatzen du eta gero eta gutxiago galdu. Partida hau ere oso irekia ageri da nahiz eta lehenak faborito ageri diren.

AURREKO JARDUNALDIA

Pasa den abenduaren 5ean erabaki ziren finalerdietako beste bi bikoteak. Batetik, **Urbiet** eta **Aranguren** sailkatu ziren **Alberdi** eta **Gorrotxategi** mendean hartuta eta bestetik **Salaberria** eta **Garmendia** pasa ziren, **Urmeneta** eta **Urruzolari** irabazita.

Ostiral honetan aukera paregabea izango da pilota partida ederrez gozatzeko. Doan, gainera. Borondatea ematen duten pilotazaleen artean saski eder baten zozketatuko da.

FINAL LAURDENAK

Arrieta-Zezeaga / Egiguren-Lizeaga.
Exposito Telletxea / Prieto-Mariezkuarena.
Abenduak 15, ostirala 19:00, Bearzana pilotalekua

Eguberri on!

TRANSPORTES Lakunza

Eguneroko zerbitzua Bizkaira, Iruñeara eta Gasteizera

609 434 910 - 609 401 884 - Tel.: 943 693 212 - Faxe: 943 694 924
transporteslakunza.com - info@transporteslakunza.com
A Induristigunea - 16. pabilioia, 20159 ASTEASU
52 P.K., 20150 AMASA-VILLABONA

KEINU

BASEBOL, JANTZIETAN AUKERA ZABALA ETA PERTSONALIZATUA

Kale Nagusia, 12 - ANDOAIN
943 02 96 76 - 637 28 32 24
keinu.andoain
www.txapelaketabordatuak.eus

Abenduan larunbat atsaldetan irekita

Banderak Txapelak Txilabak

Zatoz gure dendarari!

Mus txapelketa

EUSKAL HERRIKO MUS TXAPELKETAREN X.EDIZIOKO LEHIATAKOA ANDOAINGO IRUNBERIN, OSTIRAL HONETAN.



Sari potoloak eskuratzeko aukera dago aurtengo txapelketan.

Musean jokatzeari gogoko dutenek aukera aproposa dute Andoainen, Irunberri elkartearen. Euskal Herriko mus txapelketa Eguberrien atariko ohiko hitzordu bilakatu da, eta partidak ostiral honetan jokatu dira gaueko 22:30etan hasita. Hiru hitzordu nagusi ditu lehiaketak. Lehenengoa ostiral honetan Kale Nagusiko elkartearen jokatu dena. Hurrengoa otsailaren 24an, herrialdeko kanporaketak jokatu baitira. Eta martxoaren 10ean Euskal Herriko finala jokatu da Uztaritzen.

Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu, txapelketan parte hartu

ahal izateko. Txapelketan aurrera doazenei sari bikainak eskuratu dituzte. Hauexek dira lehen lau sariak:

- Txapeldunak: Txapela, garaikurra, 3.000 euro eta Karibera lau lagunentzat bidaia.
- Txapeldun-ordeak: Garaikurra, 1.500 euro eta Kanariar uhartera bi lagunentzat bidaia.
- Hirugarrenak: 750 euro eta lau lagunentzat asteburuko egonaldia.
- Laugarrenak: 500 euro eta euskaraz ikasteko urte osorako bi matrikula.
- 5-8. sailkatuentzat 250 euroko saria.
- 9-16. sailkatuentzat 100 euroko saria.

Santomas Urnietan

URNIETAN USADIOZKO SAGARDO LEHIAKETA OSPATU OHI DA, ARRAKASTA HANDIAREKIN.

Urnietako euskaltzaleek Santomas egunean ezinbesteko hitzordua dute txistorrarekin, taloarekin, sagar tartarekin eta bereziki usadiozko sagardo-

arekin. Urnietako sagardogileen edariaz gozatzeko aukera paregabea izan ohi da. Iluntze aldera sortzen den festa giroa ezagutzeko modukoa da.

IkusZirkus zikloa

ANDOAINEN ZIRKOAREN ALDEKO APUSTUA EGONKORRA DA, ETA SENDOA. NAZIOARTEKO KONPAINIAK DATOZ BASTERORA.



Abenduaren 26tik 30era nazioarteko ikuskizun batez gozatzeko aukera izango da egunero.

Zirkuari bultzada emateko sortu zen IkusZirkus zikloa, eta dagoeneko hamarkada osatu dute karteldegian: “Gipuzkoako kultur mapan ez zegoen zirku jaialdirik eta publiko osoarentzat atseginak diren ikuskizunak izateaz gain disziplina bera indartzeko zegoen beharra baliatuz, Andoainek eman zuen zirku jaialdi bat antolatzeke lehen pausoa”. Zirkua herritar orori gerturatzeko antolatzaileen kementa aipagarria da. Egutegia ohikoa da, Eguberri egunaren eta Urtezahar gauaren artean geratzen diren bost egunak. Beraz, abenduaren 26tik 30era, Andoaingo Bastero kulturunean nazioarteko ikuskizun ba-

tez gozatzeko aukera izango da egunero. Saio guztiak auditorioan izango dira, iluntzeko 20:00etan hasita. Aurtengoan Euskal Herriko, Kataluniako, Andaluziako, Frantziako eta Italiako konpainiak hurbilduko dira. 5 eguneko bonoak 30 eurotan salgai izan eta gero, abenduaren 15etik aurrera sarrera solteak erosteko egongo da.

Akrobaziak, trapezio hirukoitza, telak, jauziak,... zirkoaren osagai klasikoak zuzenean ikusiko dira. Eta, nola ez, umorea. Berezik, zikloa itxiko duten La Sbrindola Italiako konpainiaren eskutik. “Frenetikoa, musikalki eta ritmikoki izugarria”, horrela aurkeztu dute.

Aiurri.eus

AGENDA, ARGAZKIAK, BIDEOAK..., EGUBERRIOTAKO JARRAIPENA WEBGUNEAN ETA SARE SOZIALETAN EGIN DAITEKE.

Eguberrien martxa ezagutzeko Internet gunea Aiurri.eus izango da, beste behin ere. Paperezko argitalpena argitaratzen ez bada ere, egun seinatuetakoko argazki-

bildumak eta bideoak webgunean eta sare sozialetan ikusgai izango dira. Agenda atalean hitzordu guztiak ere eskuragarri izango dira, herriz herri sailkatuta.



Ingeles eskola

Eguberri, eta Urte berri on!
Merry Christmas and a Happy New Year

Cambridgeko azterketen prestakuntzarako zentro homologatua.

Ondorreta kalea, 7 beheko. 20140 ANDOAIN.
943 300 839 www.andoainenglish.com





Eguberri eta Urteberri on guztioi!



Asteasuko Udala

Hitzordu ugari Urnietan, Eguberrietan



Haur ikuskizuna

Abenduak 23, larunbata. Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoak Saroben.

Abenduak 16, larunbata
18:00 “Tuba Christmas” kontzertua, Saroben. Sarrera: doan.

Abenduak 17, igandea
17:00 Zinema Saroben: Spark.
19:00 Zinema Saroben: “Nacido en Siria” dokumentala, SOS errefuxiatuak elkartearekin elkarlanean. Sarrera: doan.

Abenduak 18, astelehena
16:30-19:30 Ikastetxeen erakusketa, Lekaion.
18:00 Musika eskolako gabonetako kontzertuak, Saroben.

Abenduak 19, asteartea
16:30-19:30 Ikastetxeen erakusketa, Lekaion.
18:00 Musika eskolako gabonetako kontzertuak, Saroben.

Abenduak 20, asteazkena
16:30-19:30 Ikasleen erakusketa Lekaion.
17:00-19:30 Gaztelekua: opari tailerra.
18:00 Musika eskolako gabonetako kontzertuak, Saroben.
19:00 Jaiotzaren piztuera Etxeberrri plazan, Salesiar ikastetxearen eskutik.
20:00 Gabonetako abesbatzaren entsegua, Lekaion.

Abenduak 21, osteguna
16:30-19:30 Ikasleen erakusketa Lekaion.
17:00-19:30 Gaztelekua: talo eta txistor tailerra.

17:30 Musika eskolako Gabonetako kontzertuak, Saroben.
19:00 “San Tomas eguna, neguko lurruna”, Iñistorrak antolatua.
19:30 Gabonetako lehiaketen sari banaketa, Saroben.

Abenduak 22, ostirala
16:30-19:30 Ikasleen erakusketa Lekaion.
20:00 Gabonetako abesbatzaren entsegua, Lekaion.

Abenduak 23, larunbata
17:00 Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoak: “Din, Dan, Don”, Saroben. Sarrera: 3 euro.
18:00 “Olentzero eta Mari Domingi bada-toz...” Berrasoeta parketik San Juan plazara, Egape DTk antolatuta.

Abenduak 24, igandea
Gabon-kantak herri eta baserrietan.
12:00 Gabon-kantak herri-gunean Olen-tzerorekin.
16:00 Gabon abesbatza, Lekaiotik.

Abenduak 26, asteartea
11:00-13:00 Sormen txokoa, Lekaion.
16:00-20:00 Gaztelekua: kirola eguna Kiroldegian.
16:30-19:30 Ikasleen erakusketa Lekaion.
17:30-19:00 Sormen topagunea, Lekaion.
19:00 “Ez hemengo-Ez hango” antzerkia, Saroben. Orratx antzerki taldea. Sarrera: doan.



Dantza ikuskizuna

Abenduak 29, ostirala. “Aukeran 20 urte” dantza emanaldia Saroben.

Abenduak 27, asteazkena
11:00-13:00 Sormen txokoa, Lekaion.
15:30-20:00 Gaztelekua: Zinemaz gozatzeko irteera Errenteria aldera.
16:30-19:30 Ikasleen erakusketa Lekaion.
17:30-19:00 Sormen topagunea, Lekaion.
19:00 Gospela elizan: Moon Fields.

Abenduak 28, osteguna
Goizez Gaztelekua: irteera.
11:00-13:00 Sormen txokoa, Lekaion.
16:30-19:30 Ikasleen erakusketa Lekaion.
17:30-19:00 Sormen topagunea, Lekaion.
19:30 Illumbe akordeoi orkestraren emanaldia elizan. Sarrera: doan.

Abenduak 29, ostirala
10:00-14:00 Gaztelekua: patata-tortila lehiaketa.
11:00-13:00 Sormen txokoa, Lekaion.
16:30-19:30 Ikasleen erakusketa Lekaion.
17:30-19:00 Sormen topagunea, Lekaion.
18:30 Gaueko mendi martxaren irteera San Juan plazatik, Zanpatuzen eskutik.
19:00 Gaueko mendi martxaren jarraipena Besabitik.
20:00 “Aukeran 20 urte” dantza konpainiaren urteurreneko emanaldia, Saroben. Sarrera: 5 euro.

Abenduak 30, larunbata
17:00 Zinema Saroben: Monster Trucks.

Urtarrilak 1, astelehena
Igoera Adarramendira.

Urtarrilak 2, asteartea
09:30-14:00 Gaztelekua: Adarrara irteera.
17:30 Magia. “Ilusioaren indarra” Hodei magoa, Saroben. Sarrera: 3 euro.

Urtarrilak 3, asteazkena
10:00-14:00 Gaztelekua: eskulanak.
16:30-18:30 Jolasak kiroldegian.

Urtarrilak 4, osteguna
Goizez Gaztelekua: Txuri-urdin izotz jauregira.
11:00-13:00 / 16:30-19:00 Puzgarriak kiroldegian.

Urtarrilak 5, ostirala
16:00-17:30 Errege Magoen harrera San Migel elizan, argazkiak atera eta gutunak jasotzeko.

18:00 Errege Magoen desfilea: Lobera baserritik behera etorriko da Errege-jarraigoa. Beraz, denok Erratzuko zubira hurbiltzera deitzen da.
19:00 Errege Magoek Urnietako 0 eta 6 urte arteko haur guztiei oparitxo bat banatuko diete, Udaletxeko kontzejupean.

Urtarrilak 7, igandea
16:00-18:30 Zinema Saroben: Batman Lego.



Eguberriak, Andoainen bizitzeko modukoak



Gazte Astea

Abenduaren 26tik 29ra. Jarduera ezberdinak Gazte Lokalaren eskutik.

Abenduak 15, ostirala
22:30 EHko mus txapelketa Irunberrin.
23:00 DJ Mai Irunberrin.

Abenduak 16, larunbata
11:30-13:30 Kale animazioa txarangarekin.
13:00 EHko ardoen kata Irunberrin.
17:00 Txokolate jatea haurrentzat Irunberrin.
17:00 “Paddington 2” filma Basteron, euskaraz.
18:30 “Motxilaren umea” dokumentala Irunberrin.
19:00-22:30 Gabonetako festa La Salleko jolastokian, Izartxo aisialdi taldeak antolatuta.
19:30, 22:00 “El autor” filma Basteron.

Abenduak 17, igandea
11:00-13:00 Eguberrietako apaingarriak egiteko tailerra, Juanita Alkain plazan. Ipar Haizeak antolatuta.
17:00 “Paddington 2” filma Basteron.
19:30, 22:00 “El autor” filma Basteron.

Abenduak 18, astelehena
19:30, 22:00 “El autor” filma Basteron.

Abenduak 21, osteguna
Txistorra postuak Juanita Alkain plazan.

Abenduak 22, ostirala
18:00 Andoaingo Udal Musika Eskolako tailerreko ikasleen Gabonetako kontzertua Basteron.
22:00 “La llamada” filma Basteron.

Abenduak 23, larunbata
10:00 Hazkuntza eta hezkuntza azokaren irekiera, Ametsondoa elkartearen eskutik. Zumea plazan (Eguraldi txarrarekin Ondarreta ikastetxean).
11:00-11:30 Haurrentzako yoga Zumea plazan (Eguraldi txarrarekin Ondarreta ikastetxean).
11:00-14:00 Gabonetako ekitaldia La Salle Berrozperen eskutik, Zumea plazan. Azoka txikia, jostailuen trukaketa, erabiltzen ez diren jostailuak Caritasi bideratzeko aukera, taloa eta gaztaina,...
11:30-12:00 Aurpegi margoketa Zumea plazan (Eguraldi txarrarekin Ondarreta ikastetxean).
12:00-12:30 Kirol ekintza ludikoak 3-10 urteko haurrentzat. Sportmadness Zumea plazan (Eguraldi txarrarekin Ondarreta ikastetxean).
12:30-13:00 Eskulanak. Super Hren alde, Zumea Plazan (Eguraldi txarrarekin Ondarreta ikastetxean).
12:30 Soinuak musika eskolako ikasleen Gabonetako kontzertua Basteron.
13:30 Tonbola Zumea plazan (Eguraldi txarrarekin Ondarreta ikastetxean).
17:30 Olentzero, gaztaina erreak, txokolatada eta opariak Etxeberrieta plazan, auzoko jai-batzordeak antolatuta.
19:30, 22:00 “La llamada” filma Basteron.



Hazkuntza eta hezkuntza azoka

Abenduak 23, larunbata. Goiz osoko jarduerak Zumea plazan, Ametsondoren eskutik.

Abenduak 24, igandea
17:30 Olentzero eta Mari Domingiri harriera, Aita Larramendi Ikastolak antolatuta. Irteera Basteroko plazatik.
18:30 Etorrera Espigoian.

Abenduak 25, astelehena
19:30 “La llamada” filma Basteron.

Abenduak 26, asteartea
09:30 Gazte Astea: Zesta punta Arraten.
11:00 Gazte Astea: Eskupilota Arraten.
17:00 Gazte Astea: Antzerki tailerra Gazte Lokalean.
20:00 Ikuszirkus Basteron: “Haiek naiz, soy ellas”, Rojo telón konpainia (Euskal Herria).

Abenduak 27, asteazkena
11:00 Gazte Astea: Krossa Urigainen.
16:30 Gazte Astea: Futbolina Gazte Lokalean.
18:00 Gazte Astea: Ping-ponga Gazte Lokalean.
20:00 Ikuszirkus Basteron: “Collage”, Bot project konpainia (Katalunia).

Abenduak 28, osteguna
11:00 Gazte Astea: Gazte erronka Goikoplazan.
11:00-14:00 Haur Parkea Allurralden.
16:00-20:00 Haur Parkea Allurralden.
20:00 Ikuszirkus Basteron: “Oopart”, Trasperté circo teatro (Andaluzia). Basteron.

Abenduak 29, ostirala
11:00 Gazte Astea: Zumba Gazte Lokalean.
11:00-14:00 Gabonetako Haur Parkea Allurralden.
17:00 Gazte Astea: Urte bukaerako kontzertua Gazte Lokalean.
20:00 Ikuszirkus Basteron: “Travelling circus”, Cie horses pistes (Frantzia).

Abenduak 30, larunbata
11:30-13:30 Gaztaina erreak Juanita Alkain plazatxoan, Urkik antolatuta.
18:00-21:00 Bertso poteoa eta trikitixa.
20:00 Ikuszirkus Basteron: “Shock’em all”, La Sbrindola (Italia).

Abenduak 31, igandea
11:00-13:00 Kale animazioa txistulariekin.
11:30 San Silvestre lasterketa Zumea plazan.
12:00-13:30 Pajeen irteera Errege Magoei zuzendutako eskutitzak jasotzeko. Ibilbidea: Goikoplaza - Bastero- Kale Nagusia- Zumea Plaza-Larramendi kalea. La Salle Berrozpe ikastetxeak antolatuta.
00:45-04:00 Urtezar gaueko DJ festa Nafarroa plazan.

Urtarrilak 5, ostirala
18:30 Errege Magoen etorrera, La Salle Berrozpe ikastetxeak antolatuta. Zumea plaza.
19:30 Iritsiera Goikoplazara.

ORMENDI KIROLAK

Zorionak eta Urte berri on!

Larunbatak, abenduaren 16 eta 23an arratsaldean irekita

Kale Berria, 2 - 20140 ANDOAIN
Tel.: 943 591 806
ormendikirolak@euskalnet.net

Eguberrietako egitaraua Aiztondon



Urtezaharreko lasterketa

Abenduak 31, igandea. Aurtengoan Zizurkildik Villabonara. Haurren lasterketa eta gero, helduena.

Aiztondo

Abenduak 26, 27 eta 28

Urtarrilak 2, 3 eta 4 Zirku tailerrak Asvinen. Familientzako, helduentzako, edota haur eta gazteentzako eskaintza. Informazio gehiago: 606 226 486 (Garazi) edo 606 084 987 (Koldo).

Abenduak 26-29

Urtarrilak 2-5 Kirol saioak Zizurkilen. 2004-09 urteen artean jaiotakoei zuzenduta. Futbola, frontoia eta mendi irteera. Info: 627 882 485 (Aratz) edo 627 341 707 (Beñat). Sport-madness.com.

Aduna

Abenduak 19, asteartea

18:30 Loatzo musika eskolako ikasleen kontzertua, elizan.

Abenduak 24, igandea

Goizean Gabon-kantuen erronda. Hamaketakoa eta, eguerdian, Olentzero-ren etorrera.

Urtarrilak 4, osteguna

17:00 "Kalean otso etxean uso" antzez-lana haurrentzat, Elordiko plaza-ko lokaletan.

Amasa-Villabona

Abenduak 14, osteguna

19:00 'Gabonetarako nola jantzi' hitzaldia Lourdes Esnaolaren eskutik, ikastolako ganbaran.

Abenduak 16, larunbata

19:45 Eresargi eta Eresargi Txiki abesbatzen kontzertua elizan.

Abenduak 17, igandea

11:00 Eresargi eta Eresargi Txiki abesbatzak Amasako elizan.

17:00 Magia ikuskizuna, Oliver magoa eta Eva-ren eskutik, Gurean.

Abenduak 20, asteazkena

20:00 The Lord Ainhua Egiguren eta Iñaki Miguel donostiarrek osatzen dute gospel taldea. Musika-ren historiari errepasoa emago diote Jesusen Bihotza elizan.

Abenduak 21, osteguna

18:30 Loatzo musika eskolako kideen kontzertua, Gurean.

Abenduak 22, ostirala

19:30 'Jumanji: bienvenidos a la jungla' filma, Gurea aretoan.

Abenduak 23, larunbata

17:30 Pebet pilota txapelketako finalaurrekoak, Bearzana pilotalekuan.

19:30 'Jumanji: bienvenidos a la jungla' filma, Gurea aretoan.

Abenduak 24, igandea

Goizean ikasleak herrian kantuan. 18:00 Olentzero eta Mari Domingiri ongietorria Otsabin.Ondoren, Errebote plazaraino kalejira dantzari eta musikariek.



Kontzertua

Abenduak 29, ostirala. Fino's band Asteasuko Iturri-ondon zuzenean arituko da.

Abenduak 29, ostirala

19:30 'Jumanji: bienvenidos a la jungla' filma, Gurea aretoan.

Abenduak 30, larunbata

17:30 Antton Pebet memorialeko finaleko partidak. Joko-garbi partida ere izango da ikusgai. Doan.

10:30-13:00 Seve Iglesiasen margolan erakusketa ikusteko azken eguna, Gurean.

19:30 'Jumanji: bienvenidos a la jungla' filma, Gurea aretoan.

Urtarrilak 1, astelehena

08:00 Loatzora Aizkardirekin.

Urtarrilak 5, ostirala

19:00 Errege kabalgata, Amasatik Villabonara.

Asteasu

Abenduak 16, larunbata

18:00 Euskal Herriko Harri handien txapelketa, pilotalekuan.

Abenduak 23, larunbata

18:30 Organo emanaldia, Myriam Ulanga organista eta Usarrabi abesbatzako helduak eta haurrak, San Pedro Elizan.

Abenduak 24, igandea

10:00 Gabon eskeko kantuan irtengo dira eskolako haurrak.

12:00 Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, Usarrabi pilotalekuan.

Abenduak 26, asteartea

16:40-19:30 Euskarazko jostailu berriak ezagutzeko ekimena: "Probatu eta gozatu", Txatxilipurdi taldearen eskutik, Kultur Etxean.

Abenduak 28, osteguna

16:30 Zinea euskaraz: Etxe magikoa. Ondoren merendola, udaletxean.

Abenduak 29, ostirala

20:30 Kontzertua: Andoingo Udal musika eskolako konboa 'Fino's band', Iturri-ondon.

Abenduak 31, igandea

17:00 Urrezko Aizkora txapekeltaren finala, Usarrabi pilotalekuan.

Urtarrilak 2, asteartea

17:00 'Ipuinen Haria' 4 eta 11 urte arteko hurrei eta familiei zuzendutako ipuin-kontakteta, udaletxean.

Urtarrilak 3, asteazkena

16:30 Zinea euskaraz: 'Albert', ondoren merendola, udaletxean.

Urtarrilak 4, osteguna

16:00 Pilota txapelketako finalak.

Urtarrilak 5, ostirala

20:00 Errege kabalgata.

Urtarrilak 7, igandea

12:00 Kros solidarioaren hirugarren edizioa.

Gabon zoriontsuak
opa dizkizuegu!



AMASA-VILLABONA
Villabonako Udala



Eguberrietako egitaraua Aiztondon



Kantu saioa

Abenduak 24, igandea. Larrauldar taldea baserriz baserri kantuan arituko da.

Larraul

Abenduak 24, igandea
Goiz eta arratsalde baserriz baserri kantuan. Arratsaldean, Olentzeroren etorrera larrauldarrengana.

Abenduak 27, asteazkena
17:00 Film emanaldia eta krispetak Kultur etxean.

Abenduak 29, ostirala
16:00 Gaileta tailerra HHko haurrentzat, Katilutxulo elkartearen.
17:00 Gaileta tailerra LHko haurrentzat, Katilutxulo elkartearen.

Zizurkil

Abenduak 17, igandea
11:00 Jostailu truke azoka, Aiztondoko Denbora Bankuaren eskutik. Era-

biltzen ez diren jostailua, mozerro edo arropak ekarri, eta trukean beste bat eramateko aukera izango da Joxe Arregi plazan.

Abenduak 18, astelehena
18:30 Loatzo musika eskolako kideen Eguberrietako emanaldi berezia, Arantzazuko Amaren elizan.

Abenduak 19, asteartea
Eguberrietako sukaldaritza tailerra Urkamendi elkartearen. Gehienez 20 pertsonenez osatutako taldean, menu erraz eta goxoa prestatzen ikasteko tailerra, Xabi Tello sukaldariaren eskutik. Prezioa, 15 euro.

Abenduak 20, asteazkena
17:30 Gabonetako ipuinak, Ixabel Milleten eskutik, Iriarten.



Ipuin kontaketa

Abenduak 20, asteazkena. Ixabel Milleten eskutik, Zizurkil Goiko Iriarte etxean.

Abenduak 21, osteguna
18:00 Txistorra jatea, Elizpe elkarteak antolatuta. Oparien zozketa.

Abenduak 24, igandea
Goizean, San Millan eskolako haur eta gurasoak Zizurkil Goian, eta Pello Errota ikastetxea eta Zubimusuko kideak, Elbarrenan barrena kantari.
17:30 Olentzero eta Mari Domingiri ongi-etorria Joxe Arregi plazan.

Abenduak 28, osteguna
17:00 Ipuinen unibertsoa familian. Ficobako Eguberrietako parkera irteera, Gaztezuloren eskutik.

Abenduak 31, igandea
16:00 Urkamendi elkartearen paretik abiatuko da Urtezaharretako lasterketa. Haur eta gaztetxo on-



Irteera

Urtarrilak 3, asteazkena. Rocopolis.

doren, helduen txanda iritsiko da. 6,5 KM-ko ibilbidea egin beharko dute nagusiek.

Urtarrilak 3, asteazkena
Iruñerriko Rocopolisera irteera, Gaztezuloren eskutik.

HARRO EGOTEKO MODUKO ENTZUMENA

GABON ZORIONTSUAK

Zure bigarren audifonoa %50eko deskontuarekin
Baldintzen argibideak zure optikan

Kale Berria 23A
Villabona
943 111 840

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Gipuzkoako Foru Aldundia

OGI ZURI

OKINDEGIA, S.L.
Lizarra-etxea, 32.
Elizmendi auzoa. ASTEASU
☎ 943 691 896

OGI-ZURI
Bulandegi bidea 1-3. ZIZURKIL
☎ 943 691 000

OGI GOXO

OGI-GOXO
Kale Nagusia, 26.
AMASA-VILLABONA
☎ 943 693 294

EGUBERRI
ETA URTE BERRI ON!

Ogi herezi eta artesanak - Etxerainoko zerbitzua

Generoaren arabera jostailuen aukeraketa, betiko joerei iskin egiteko aholkuak

AMETSONDOAREN ESKUTIK, JOSTAILU EZ-SEXISTAK AUKERATZEKO HITZALDIA ESKAINI ZUTEN ANDOAINGO URIGAIN ETXEAN. EMAKUMEAK IZAN ZIREN GERTURATUTAKO IA DENAK: MAGISTERITZAKO IKASLEAK, AMA IZAN BERRIAK ETA HEZITZAILEAK.

Galdera batekin hasi zen hitzaldia: *Zer da sexista jostailua ala jolasa?* Jokoa eta jolasa bereizi egin behar direla azpimarratuz hasi zen Ametsondoa Elkarteko **Eli Sanchez**: “Jolasa hurrek mundua eza-gutzeko duten modua da, eta jolasaren bitartez beren izaera sortzen dute. Jostailua jolasteko erabiltzen duten objektua da”. Jostailuari ematen zaion erabilera egiten du jostailua sexista. “Haurri arrosa koloreko sukaldia oparitzen gero, neskentzako jostailua dela erantzungo du haurrak; aldiz, kolore neutroagoko sukaldia oparitzen gero bestelako irudia erakusten diogu haurriari”.

Jostailuetan agertzen diren telebista-pertsonaiek informazio ugari dakarte berarekin. “Telebistako pertsonaiek izaera jakin bat, janzteko modu bat, jokatzeko modu bat dituzte. Mezu hori guztia ari gara haurrei transmititzen”.

SEXUAREN (=GENEROAREN) ARABERAKO JOSTAILUAK

Bizi garen gizartean oso banatuta daude neska eta mutilen errolak. Neskentzat jostailu mota batzuk daude, eta mutilentzat beste batzuk. Panpinak eta karritoak, sukaldetxoak, makillajea, sekretuen egunerokoak edota printzesen ipuinak izan ohi dira neskei oparitzen zaizkien jostailuak. Horrela etxeko zaintzara eta euren itxura polit mantentzera bideratzen ditugu neskek. “Heldutasunera iristean emakumeak obsesionatuta egon ohi gara etxea txukun mantentzen gonbidatuak etortzen direnerako. Txikitatik horretara entrentzen gaituzte, ez zait erokeria iruditzen neskek jarrera hori hartu izana”, azaldu zuen Sanchezek.

Mutilei, aldiz, baloiak, autoak, bizikletak, eraikuntza jolasak, munstroak edota abenturazko ipuinak oparitu ohi zaizkie. Horrela mugimendua, ekintza aktiboak eta zentzumenak sustatzen di-



Ametsondoa Elkarteko Eli Sanchez hizlari aritu zen.

“Heldutasunera iristean emakumeak obsesionatuta egon ohi gara, gonbidatuak etortzen direnerako, etxea txukun mantentzen. Txikitatik horretara prestatu gaituzte”
Eli Sanchez

tuzte; espazioaren kontrola, indarra, abiadura, abilezia fisikoa edota ausardia izanik garatutako ezaugarriak.

PUBLIZITATEA

Telebistako iragarkietako elementu ezberdinek informazio ugari ematen digute produktuari buruz, esaterako, musikak, ahotsak edota koloreak. Publizitatearen bitartez transmititu nahi den mezua ezberdina izan ohi da neskentzat eta mutilentzat.

Mutilen kasuan, iragarkietako musika rockeroagoa izan ohi da, tonu gogorra-goekin; ahotsa gizonezkoarena, grabea. Mezuan erabilitako hitza “txapelduna” izaten da, handia izatean suhiltzaile, mediku edota astronauta izan daitezkeela esanaz.

Neskei bideratutako iragarkiek zabalduak diren mezua, aldiz, oso bestelako da. Musika oso lasaia, tonu baxuko ahotsarekin. Erabilitako hitza “perfektu” izan ohi da, eta handia izatean zaintzaile, erizain edota alaitari izatearen mezua zabalduz.

Ametsondoa elkarteko Eli Sanchezek adierazi zuen neska edo mutila hezitzerako orduan, ezberdin pentsatzen dugula. “Alaba edukitzean oso argi dugu handitzean seguruena gaizki tratatuko dutela edota estutasun batean egongo dela, eta horretarako prestatzen dugu. Semea edukitzean, aldiz, ez dugu pentsatzen bera izan daitekeenik agresio edota estuasun hori eragingo duena”.

“Telebistako pertsonaiek izaera jakin bat, janzteko modu bat, jokatzeko modu bat dituzte. Mezu hori guztia ari gara haurrei transmititzen”
Eli Sanchez

KONTUTAN HARTZEKOAK

Haurrentzako opariak erostean zein ezaugarri hartu behar diren kontutan? Haurren adina, izaera, bere errealitatea eta bidali nahi den mezua.

Jostailua zenbat eta garestiagoa izateak ez du esan nahi hobeagoa denik; edota opari gehiagok ez diote maitasun gehiago ziurtatzen haurriari. Jostailuak gauza asko egiten baditu, haurrak gutxi egingo dituelakoan da Sanchez, haurri bere sormena lantzeko aukera gutxiago emanaz.

PROPOSAMENAK

Hizlariak jostailuak erosteko gomendio ezberdinak eman zituen hitzaldian. Haurriari genero estereotipatuak zalan-tzak sortu ahal dizkieten jostailuak proposatzen ditu; material aniztasuna eskaintzen dituztenak. Bakarka nahiz taldean aritzekoak eta erabilera proposamen anitzak eskaintzen dituztenak.

Bestelako proposamen berriak ere proposatu zituen. Esaterako, semeari gustatzen zaion jostailuaren kaxak neska-karen argazkia badu, atera eta marrazki nahiz kolore neutroagoko kaxa batean gorde. Edota alabari suhiltzaile kamioia gustatzen bazaio, neska suhiltzailea duen figuratxo ipini gizonezko suhiltzailearen ordean. Modu horretan, gizarteak inposatutako estereotipoetatik at dauden aukera gehiago badaudela ikasiko dute haurrek.



Jostailuak trukatzeko aukera, igande honetan Joxe Arregi plazan

IGANDE HONETAN, ABENDUAK HAMAZAZPI, AZOKA BEREZIA EGINGO DUTE ZIZURKILEN. AIZTONDOKO DENBORA BANKUKO KIDEEK ANTOLATUTA, JOSTAILUAK TRUKATZEKO AUKERA ESKAINIKO DUTE JOXE ARREGI PLAZAN.

Aurreko urtetan bigarren eskuko jostailu eta oparien bilketa abiarazi izan dute Denbora Bankuko kideek. Bilketa arrakastatsua izaten zen eta ondoren, Denbora bankukoek bildutako guztia sailkatu, garbitu eta txukundu egiten zuten, jendeari banatu aurretik. **Olga Villa** larrauldarra talde eragileko kideetakoa da: “Oso erantzun ona jaso izan dugu beti. Ganbaran pilatutako jolas, jostailu, bizikleta, patinete, arropa, moxorro..., gauza ugari ekartzen zizkigun jendeak. Jasotakoa prestatu ondoren, premian dagoen jendeari nahi zuena hartzeko gonbita luzatzen genion”.

AURREKO EREDUAREN HAUTSIZ

Aurten, ordea, beste modu batera egiteko erabakia hartu dute. “Izan ere, ez ginen batere gustura zenbaiten jarrerarekin. Jostailuak hartzeko momentua iristen zenean, ahal zuten guztia hartzen zuten, atzetik zetoztenengan batere pentsatu gabe. Gure ekimenaren helburua ez zen hori, eta beste modu batean antolatzea erabaki genuen”, azaldu du Olga Villak.

Truke azoka egingo dute aurten, froga modura. “Abenduaren 17an, Joxe Arregi plazan jarriko dugu postua. Erabiltzen ez duten jostailuren bat ekarri, eta trukean beste bat eramateko aukera izango dute bertaratzen diren guztiek. Aukera polita izan daitekeela iruditzen zaigu”. Jostailu guztiei balio berbera ematen diete antolatzaileek: “Dagoeneko erabiltzen ez duguna ekarri, eta erabiliko duguna eraman, hori da helburua, bakoitzak zenbat euro balio duen pentsatu gabe”.

JOXE ARREGI PLAZAN

Zizurkilen egiteak badu bere zentzua, “izan ere, aurrez ere egin izan dira Zizurkilen gisa honetako ekimenak eta



Erabiltzen ez duten jostailuren bat ekarri, eta trukean beste bat eramateko aukera izango dute bertaratzen diren guztiek.

Udala bazebilen berriz ere antzeko zer-bait egiteko asmotan”. Abenduaren 17an, 11:00etatik 13:00etara izango da

zabalik truke azoka. Joxe Arregi plazan jarriko dute postua: “Guk dagoeneko baditugu zenbait jostailu eta, postuan



Denbora bankuko kideak, igandeko jostailu bilketen prestaketa lanetan.

Erabiltzen ez duten jostailuren bat ekarri, eta trukean beste bat eramateko aukera izango dute bertaratzen diren guztiek

jarriko ditugu”. Eguraldi txarra egokitzten bada, Atxulondo kultur etxeko babesera eramango dute azoka.

Lehen aldia izanik, Aiztondoko Denbora Bankuko kideek ez dute ekimenak jaso dezakeen erantzunaren inguruko zantzurik: “Aurreko eredua ez zitzailgun gustatzen eta aldaketa behar beharrezkoa zen. Horregatik eman dugu pausoa, baina ikusiko dugu jendeak nola erantzuten duen”.

ONDO PASA GABONETANI!

Goine
esneki naturalak

GURE PRODUKTUAK

Gaztuna "katzur kizuma" **BERPIA**

Mama

Gaztazarna

Gazta biguna

Gazta rufoa

Ondutako idiazabalgo gazta kietua

Gazta freskoa

Jogurtia banatzen eta marribekin

Jogurt naturala eta azukreztatua

SASKAGOIN KOOPERATIBA ELKARTE TXIKIA - Gorua
Goiena baserria, z/g - 20159 ASTEASU
Tel.: 647 697 535 / 615 296 613 saskagoin@gmail.com

ALBIZU

KIROLAK

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

Kale Nagusia, 2 - Tel.: 943 693 131
20150 VILLABONA

Euskal giroko jaia Urnietan, San Tomas egunean

SAN TOMAS JAIAREN EDIZIO BERRI BAT OSPATUKO DA URNIETAN, IÑISTORRA EUSKALTZALEEN BILTZARRAK ANTOLATUTA. EUSKAL TRADIZIOAK ETA GASTRONOMIAK BAT EGINGO DUTE DATORREN OSTEGUNEAN.



Sagar tarta lehiaketara aurkeztutako tartak dastatzeko zain izaten dira herritarrak.

Euskal tradizioak, bertako produktuak eta urnietarren ongi pasatzeko gogoak uztartzen dira Kontzejupean, abenduaren 21ean. Donostiako masifikaziotik urrundu nahi duenarentzat Urnietara hurbiltzea ezin egokiagoa da.

Jaia udaletxeko arkupetan eta San Juan plazan izango da ohi da, arratsaldeko 17:30etan hasi eta iluntzera arte. Osagaiak, asko eta askoren gustukoak

dira: trikiti hotsak, txorixoa, gaztain erreak, taloak, sagar tartak, ardoa eta Urnietako sagardogileek egindako sagardoa...

Emoziorik ere ez da faltako. Izan ere, bertako sagardoa dastatu ahal izateaz gain, horiekin txapelketa egingo da, eta gainera, ekitaldiaren amaieran irabazlearen botila bat enkantean jarri ohi da. Bigarren lehia, sagar tartarekin egingo



Taloa ezinbesteko osagaia da Kontzejupean.

da. Urnietarrez osatutako epaimahai batek erabakiko du nortzuk diren bi lehietako irabazleak.

Arratsaldean zehar txartelak erosi ahal izango dira Iñistorrak ipinitako postuan. Elikagaiez osatutako saski eder bat zozketatuko da, gainera, 700 euroko balioa daukana. Sari potolo horrez gain, sari gehiago banatuko dituzte 19:00etan, 19:30ean eta 20:00tan.



Oianume: 93,5 puntu. Errotaburu: 84. Pagoaga 83. Iazko sagardo lehiaketako onenak.



**Urnietan hazi,
on bizi eta erosi**



**Eguberri eta
Urte berri on!**

**Aurtengo
Gabonetan
erosi**

Urnietako dendetan





EUSKARA

Atzoko Andoain eta euskara hainbat lekukotzen bitartez

Ahotsak egitasmoan lekukotza eman zuten 73 andoaindarrei aitortza eta eskertza adierazi zien Andoaingo Udalak joan zen igandean, Basteroko ekitaldi aretoan.

Andoaingo XX. mendeko belaunaldi oso baten ordezkaritza zabala hurbildu zen ekitaldira, eta une hunkigarriak biziz. Ekitaldian bertan eskaini zuten ikus-entzunezkoa ikusteko garaian, bereziki.



Andoaingo euskararen eta XX. mendearen lekukotza bizia eman zuten argazkian agertzen diren askotxo, Ahotsak egitasmoaren bitartez. Udalak aitortza ekitaldia eskaini zien joan zen abenduaren 3an.

Ainara Rodriguez Andoaingo Udaleko Euskara zinegotziak ongietorria eman zien Bastero bete zuten herrikideei: “Euskararen nazioarteko eguna aukera paregabekotzat jo dugu Ahotsak ekimenari amaiera emateko”. Ahotsak egitasmoari esker, Andoaingo herriak daukan ahozko altxorrari garrantzia eman zion jarraian: “Jabetu behar gara, euskararen historian, Andoainen daukagun lehen lekukotasuna dela bideo edo grabazioen bidez jasotako elkarrizketa sorta. Gaurtik aurrera hobeto ezagutu ahal izango dugu gure herriaren iragana. Geure iragana jakitea beharrezkoa dugu, nondik gatozen konturatzeko eta etorkizuna eraikitzeko”.

Ana Carrere Alkateak ere ildo beretik jardun zuen, eta Ahotsak ekimenak jaotasko lekukotza horiekin guztiekin poza agertu zuen: “Mendeetan zehar, andoaindarrok eta euskaldunok gure lekukotasuna hitzez gorde dugu. Andoaingo jendearen ahotsak sutondoko ahots eta murmurio izan dira. Maiz ez diogu garrantzia eman gure bizipen eta kondairak lau haizetara zabaltzeari, beste gizarte eta kultura batzuek egin moduan. Horregatik, gaurkoak, bere apaltasunetik, garrantzi handiko pausoa eman dugula adierazten du. Zuen bizipen eta kontakizun horiek ez dituelako denboraren joanak isilduko. Hor geldituko baitira. Gaurko eta biharko

andoaindarrek, jakinmina duen orok ezagutu ditzaten”.

UNE HUNKIGARRIAK IKUS-ENTZUNEZKOAREN EMANALDIAN

Ekitaldian eskainitako bideo emanaldiak zirrara berezia eragin zuen. Ia hirurogei andoaindarren elkarrizketekin osaturiko muntaia izan zen. Horiek guztiekin egindako elkarrizketa luzeetatik pasarte txikiak aukeratu eta *collage* modukoa osatu zuten, abenduaren 3ko ekitaldian espreski eskaintzeko. Bati baino gehiagori barrea zein malkoa isurarazi zizkion. Ez zen gutxiagorako, pantailan azaldu ziren herrikide asko gure artetik jada joanak baitira.

Dokumentalean zehar argi antzematzen da XX. mendeko lehen hamarkadetan jaotako andoaindarren ahotan euskarakduen ukitu aparta eta grazia berezia. Makina bat gai jorratzen dituzte bertan: Andoaingo auzoak eta auzotarrak, etxeko lanak, baserri lanak, jolasak, eskola, kristau ikasbidea, eliza, kirolak, 36ko gerra, gerra osteko gosea eta miseriak, euskara galarazia...

Ekitaldiari amaiera emateko, lekukotza eman zutenek banan-banan oroigarria jaso zuten. Bi izan ziren, zehazki esanda: pertsona bakoitzari egindako elkarrizketaren grabazioaren kopia eta, bestetik, ekitaldian bertan eskaini zuten dokumentalaren kopia.

BADIHARDUGU ELKARTEA, SUSTATZAILE NAGUSIA

Ahotsak egitasmoa bultzatu duen Badihardugu elkarteak **Ainhua Ansak** eta **Irati Lizeagak** ere ekitaldian hitza hartu zuten. Ansa izan zen Andoainen bideoz grabatu ziren elkarrizketa gehien gehien egilea, eta eskerrak eman zizkien elkarrizketatuei, solasaldirako proposamena egin ahala etxeko ateak ireki izanagatik: “Sukalderaino gonbidatu ninduzuen, ateak zabal-zabalik ireki zenizkidaten, eta eskerrak eman behar dizkizuet; ez bakarrik Andoaingo herriari buruz nik ikasi nuenagatik, baita garai bateko bizimoduaz eman zenizkidaten azalpen jakingarriengatik ere. Etorkizun bateko euskaldunek jakin bezate hor dauzkatela, artxiboan bilduta, zuen kontakizun guztiak; primerako materiala izango dute, zuen hizkera eta bizikera ikasteko eta aurrera segitzeko”.

Irati Lizeagak Ahotsak egitasmoaren nondik norakoa azaldu zuen. Ahotsak egitasmoa Deba Ibarreko Badihardugu Euskara elkarteak jarri zuen martxan 1999an, esan bezala. Hasieran, Ibarra osatzen duten hamazazpi herrietako hizkerak, ahozko ondareak eta norbanakoaren bizipen pertsonalak modu etnografiko batean jasotzean oinarritu zen egitasmoa, eta denbora batera, Euskal Herrira zabaldu zen. Egitasmoaren

“Zuen bizipen eta kontakizun horiek ez dituelako denboraren joanak isilduko. Hor geldituko baitira. Gaurko eta biharko andoaindarrek, jakinmina duen orok ezagutu ditzaten”

Ana Carrere

inguruan herriz herri indarrak batzen joan ziren eta elkarlana sustatzen. Jende ugari (itzultzaileak, irakasleak, teknikariak, idazleak, kazetariak...) atxikimenduari esker, Euskal Herriko herri gehienetan egin ahal izan dira elkarrizketak. Sistematizazio eta metodologia zehatz batekin egin dira elkarrizketa guztiak.

MUSIKA EMANALDIA

Ekitaldian zehar, eta hizlariarekin tartekatuz, musika emanaldiaz gozatu ahal izan zuten Basterora bertaratutakoek; Joxan Goikoetxea (teklatura), Iosune Marin (kitarra) eta Olatz Pratek (ahotsa) osatutako hirukotearen eskutik.

Ekitaldia zizka-mizka batekin amaitu zen. Euskararen egunak segida izan zuen iluntzean. Ez Dok Hiru antzezlanaren emanaldiarekin.

[Argazkiak, bideoa: Aiurri.eus]

EUSKARA



Joakina Irizar.



Migel Ansa.



Maria Jesus Ansa.



Maria Angeles Belamendia.

Aitortza
jaso zuten
andoaindarrak:

Juan Aizpurua.
Juan Batista Aizpurua.
Migel Amas.
Angel Amenabar.
Maria Angeles Amenabar.
Joxeba Amutxastegi.
Bittoriano Ansa.
Erramun Ansa.
Mari Karmen Ansa.
Maria Jesus Ansa.
Migel Ansa.
Mikela Ansa.
Roke Ansa.
Luxio Aranburu.
Martin Aranburu.
Txomin Aranburu.
Juan Bautista Arruti.
Iñaki Arregi.
Primitibo Arregi.
Maria Esther Arrieta.
Maria Dolores Arruabarrena.
Arantxa Artano.
Rosarito Artolazabal.
Juan Batista Barandiaran.
Roxario Begiristain.
Fermin Belamendia.
Maria Angeles Belamendia.
Maria Pilar Beloki.
Imanol Egibar.
Joxe Eizmendi.
Joxe Manuel Erkizia.
Inazio Etxeberria.
Roke Etxeberria
Rafael Etxezarreta.
Maria Jesus Fernandez.
Joxe Forcada.
Gurutx Gantzarain.
Joxe Goikoetxea.
Delia Huizi.
Joxe Antonio Huizi.
Ramon Huizi.
Joxe Iraola.
Migel Irazusta.
Joakina Irizar.
Patxi Irizar.
Carmen Jauregi.
Pedro Jauregi.
Ixiar Mendikute.
Kristina Mendikute.
Loli Mendikute.
Iñaxio Mendiluze.
Mertxe Mujika.
Miel Muñagorri.
Loren Nabarro.
Joxemari Oartzabal.
Maria Oartzabal.
Joxe Mari Olazabal.
Bixente Olano.
Jexux Mari Otamendi.
Salbadora Roldan.
Mari Cruz Sagarzazu.
Maria Uranga.
Joxe Mari Urola.
Txomin Usandizaga.
Joxe Luis Usarralde.
Antonio Zabala.
Bittori Zabala.
Felix Zabala.
Martin Zabala.
Miren Zarraga.
Agustin Zinkunegi.
Maria Kristina Zinkunegi.

Lekukotza eman zutenen poza

Joakina Irizar

“Ez nuen uste ekitaldia horren polita izango zenik. Esan behar dizut pantailan neure burua ikusteak efektu arraroa eragin didala: elkarrizketa egin zidate-nean gazteagoa nintzela uste nuen! Zahartuta agertzen naiz, ordurako hala bainengoen! Garro baserrian hazi eta hezitakoa naiz. Ez naiz eskolara asko joandakoa; oso ume nintzela, ama barazkiekin Donostiara salmentara joan behar izaten zuen, eta zortzi urterekin etxean geratzen nintzen bazkaria jartzen. Hamabi urterekin, berriz, neska-me joan behar izan nuen. Eskola gutxi esan bezala, baina zer kontatua eduki dut asko. Sorabillako tabernan 46 urte egin nituen, eta jendartean hizketarako erraztasuna ematen du horrek”.

Maria Jesus Ansa

“Txikitako kontuak, abestiak, jolasak... era guztietako galderak egiten zizkidaten, eta nik ere denetik erantzun. Ni oso andoaindarra sentitzen naiz. Gero-rako eta datozen gazteentzat eskoletan ikasteko oso irudipen politikak geratuko dira gordeta. Gaur etorri garenak pribilegiatu batzuk gara, bizi garelako. Egin kontu zenbat diren joanak...”.

Miguel Ansa

“Polita iruditu zait gaurko ekitaldia. Ia bi orduz aritu ginen hizketan. Denetik kontatzeko denbora eman zidan elkar-rizketak: umetako ibilerak, eskolatik etxerako ibilerak eta gaiztakeriak, base-rriko zereginak, fabrikako lanak..., eta baita hamabi urterekin frankismoan ze-har ikusitako mugimenduak eta klan-destinitateko ekintzak, alegia, Jainkoa eta Lege Zaharra lema zeramaten pin-tadak, Buruntzako gurutzean ikurrina jartzeak, Urbiako zelaietan jende arte-tik ikurrina altxatzeak eta bizitutako emozio eta dardarak...”.

Maria Angeles Belamendia

“Oso ekitaldi polita, gogoangarria izan da gaurkoa. Makina bat lan egin du ba-ten batek! Larre motzean hazitakoak izan arren, beti kontuak adieraztearen aldekoak izan baikara. Hamaika seme-alaba ginen baserrian baina ama oso ona genuen, eta behin ere errietarik ez zigun egin. Euriak kalean harrapatu eta etxera itzuli behar zenean, alpagatak ez puskatzeagatik lepoan hartu eta han-kutsik abiatzen ginen. Intxaurren handia bagenuen etxe ondoan, eta ez-kurrak erortzen ziren garaian, koxka

batean jarri eta panpinak egiten geni-tuen intxaurrekin eta ezkurerekin; ba-tzuk mantalarekin, besteak mantalik gabe... Kalera etorrita, kale bakarra zen Andoainen baina hortik ez zen automo-bilik ibiltzen, eta gu txingoka jolasean zenbat ez ote ginen ibiltzen *karretera generalean*, kotxerik ikusi gabe! Gerra ere ezagutu genuen, baita soldaduak eta guardia zibilak; bonbak etxe ondo-tik pasatzen zitzaizkigun eta korrika abiatzen ginen belaze azpian sartzer-a. Holaxekoa izan zen gure bizimodua, baina beti pozik! Umeak ume bezala pasatzen baditu urte horiek, jolasean eta horrela, zoriontsu da beti.

Sorabillara joaten ginen plazara, eta han On Domingo apaiza egoten zen. Harekin ikasi genituen lehenbiziko le-trak, batuketak, kenketak, dotrina... Dena euskaraz! Hark ez zigun dotrina galdetzen; “zuek nik baino gehiago da-kizue” esaten zigun. Gero eskola publi-koan hasi ginen, eta han dena erderaz eta eskas. Piku baten azpian, astean behin guri doktrina ematearen aitz-a-kian, euskaraz hitz egiten genuen. Go-xokia ekartzen zigun”.

[Adierazpenak, zabalago: Aiurri.eus]



KIROL ALBISTEAK

Mendiko federatu txartela egiteko deialdia zabalik da



2018ko mendiko federatu txartela egiteko deialdia zabalik da. Izena emateko bi bide daude. Lehena, Euskalduna Mendigoizale Elkartera bertaratuta, astelehenetik ostegunera arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara. Bigarren modua, posta elektronikoz honako datuak bidal-

tzea da: izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia, e-maila eta aukeratutako modalitatea. Ondoren, Euskalduna Mendigoizale Elkarteko kontu korrontean dagokizun diru kopurua sartu behar da. Zalantzarik izanez gero 943 59 22 32 da elkarrearen telefono zenbakia.

Urnieta KE taldeko pala eta trinkete emaitzak

Amaitu dira Gipuzkoako senior mailako larruzko pale-tako eta pala motzeko txapelketak. UKEko arduadun **Txema Gonzalezek** eta palistek alde zurretik ezarritako helburuak bete dituztela esan daiteke. Iaz bi igoera lortu ziren bigarren mailara, paletan eta beste bi pala motzean; talde bat joko moeta bakoitzean mantentzearen itxaropenarekin ari ziren, eta horixe da gertatu dena. Aurreikusi moduan, bi bikotek maila galdu dute. Gainera, hirugarren mailan hasitako **Ekain Iribar** eta **Javier Millet** bikoteen estreinaldia ona izan da, finalurrekoetaraino iritsita. Balorazio positiboa, beraz, probintziako txapelketatik atera daitekeena. Asteburuan izandako eskuz banakako trinkete probintzia-

ko txapelketan bi garaipen eta porrota izan ziren.

TRINKETEA

Urnieta 35-16 Gazteleku

Aitor Aldunberri. Jubenilak. Aitorrek partida ona jokatu du. Aurten lehenengo postuagatik borrokatu beharko luke.

Mundarro 40-25 Urnieta

Eñaut Esnaola. Seniorrak. Ez zuen bere ohiko maila erakutsi Esnaolak titulua eskuratzeko faboritoaren aurka. Finalurrekoetara sailkatzeko borrokatuko du.

Urnieta 40- Azkoitia 5

Julen Loitegi. Seniorrak. Fisikoki, mentalki nahiz eskuz maila onean aurkitzen da Loitegi. Titulurako hautagaietakoa da.

Andoaingo antolatzaile taldea azken xehetasunetan murgildu da

Urte zaharreko lasterketa geroz eta gertuago



Andoaingo lasterketara mozorrotuta agertzeko gonbidatea luzatu dute Lasterka Itzuli ekimeneko antolatzaileek.

Hirugarren urtez San Silbestre lasterketa ospatuko da Andoainen abenduaren 31ean, Lasterka Itzuli taldearen eskutik. Goizeko 11:30etan abiatuko da lasterketa Zumea plazako autobus geltokiaren paretik. 5 kilometro eta 300 metroko itzulua izango da, iazkoaren berdina, eta bi buelta eta erdi eman beharko zaizkio itzuliari. Aurten ere 400 korrikalari inguruk parte hartzea espero da.

Lasterketa 12:15 inguruan amaituko da, eta antolatzaileek jakinarazi dutenez kiroldegiko dutxak 12:30ak arte zabalik izango dira.

IZEN-EMATEA

Izena emateko bi bide daude. Lehena, abenduaren 31ean goizeko 10:00etarako Zumea plazara agertuta. Eta bigarrena, herrikrosa.eus atarian fitxa beteta. 16 urtetik beherakoek gurasoen baimena behar dute lasterketan parte hartzeko; eta horrez gainera, heldu baten laguntzarekin irten beharko dute.



Baimenaren esku-orria Allurralde kiroldegian eskuragarri dago.

Lasterketan parte hartzeko 6 euro ordaindu beharko dira, eta 16 urtetik beherakoek 4 euro.

MOZORROA

Azken bi edizioetan korrikalari batzuk lasterketa mozorrotuta egitera animatu dira. Aurtengoa ere, lasterketara mozorrotuta joateko gonbitea egin dute Lasterka Itzuliko antolatzaileek. Mozorro originalena mariskada eder batekin sarituko dute.

PARTE HARTZAILEEN ARTEAN BANATZEKO ZOZKETA UGARI

12:45etan hasiko dira sari banaketa eta zozketak. Helmugara heltzen lehenak diren lehen emakumezkoari eta gizonezkoari txapela eta lore-sorta emango zaizkie. Zozketei dagokienez, bi pertsonentzako 12 otordu zozketatuko dituzte parte-hartzaile guztien artean, eta baita babesleek emandako hainbat sari ere.

Lasterketaren inguruko informazio gehiago Lasterka Itzuli antolatzaileen Facebook-orrialdean eskuragarri dago.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.



Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 36 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.eus
Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.eus

Erredaktoreak:

Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Olatz Lasa eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.eus

Publizitatea:

Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 6.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa

arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Tel.: 943 300 732

Banatzzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Inprimategia: Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

ABENDUAREN 14TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Zinema

Andoain, Bastero

El autor

Larunbata, 16. 19:30, 22:00.
Igandea, 17. 19:30.
Astel., 18. 19:30, 22:00.

Paddington 2

Abenduak 16, 17. 17:00.

La Ilamada

Abenduak 22. 22:00.
Abenduak 23. 19:30, 22:00.
Abenduak 25. 19:30.

Urnietan

Spark

17:00 Sarobe.
Abenduak 17, igandea.

Nacido en Siria

Dokumentala.
19:00 Sarobe.
Abenduak 17, igandea.

Ikastaroa

Urnietan

Mindfulness ikastaroa, Pepa Bojoren eskutik.
Izen-ematea: Bertan.
Epealdia:
Urtarrilak 10-martxoak 14.
Asteazkenero: 15:00-17:00.
Izena emateko epea:
Abenduak 15.

Musika

Urnietan

Lurdes Iriondo Udal musika eskolako ikasleen kontzertua.
Abenduak 16-21. Sarobe.

Tailerra

Andoain

Eguberrietako apaingarriak egiteko tailerra, naturarekiko errespetagarriak diren elementuekin. Ipar Haizea ekimenak antolatuta.
11:00-13:00 Juanita Alkain.
Abenduak 17, igandea.

Ospakizuna

Andoain

Irunberriren urteurrena.

Abenduak 14, osteguna:

Pintxo pote berezia.
21:00 Gorpuzkingz.
Abenduak 15, ostirala:
Afari bereziak.
22:30 EHko mus txapelketa.
23:00 DJ Mai.

Abenduak 16, larunbata:

13:00 Ardo dastaketa.
17:00 Txokolate jatea.
18:30 Dokumentala: "Motxilaren umea".

Farmaziak

Andoain

Gorospa:

Rikardo Arregi, 12.
Gauetz: Etxebeste (Hernani).
Abenduak 16, 17.

Urnietan

Etxebarria (Hernani):

Andre kalea, 48 (Cuevas).
Gauetz: Etxebeste (Hernani).
Elkano, 9 behe.
Abenduak 16, 17.

Sariketa

Andoain

Olazabalen bidea saria, aurtengoan Osasun pastoralarentzat.
19:00 Bastero.
Abenduak 14, osteguna.

Solasaldia

Andoain

Mahai-ingurua: "Memoria eraikitzen". Herritarren foroen esperientzia herriko bizikidetzak sustatzeko planetan. Hizlariak: Olatz Prat (Baketik), Arantxa Izagirre (Tolosako foroa), Pello Sasiain eta Rosa Bell Ausin (Lasarte-Oriako foroa).
19:00 Bastero.
Abenduak 19, osteguna.

Plenoa

Andoain

Udalaren osoko plenoa.
19:00 Andoain.
Abenduak 20, asteazkena.

Lehiaketa

Andoain

Andoain Laburrean bideo laburren lehiaketa. 16 urtetik gorakoentzat. Oinarriak andoainarraeuskaraz.eus webgunean. Lanak internet bidez edota euskara zerbitzuan aurkeztu behar dira.
Epea: Otsailak 15.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Ander, abenduaren 12an jada 19 urte. Egunderragiro dezazula... eta beti aurrera! Besarkada bat. Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Euri Zubizarretak abenduaren 19an 3 urte beteko ditu. Zorionak txapel-dun eta ondo pasa eguna, muxu potolo bat.

ANDOAIN


ZORIONAK



Zorionak txapel-dun! Egunderragiro ezazula Peio! Dagoeneko bederatzirte daramatzazu zoriontsu egiten!

URNIETA


ZORIONAK



Martxeli, hilaren 18an zure 90. urteak ospatuko ditugu elkarrekin. Muxu handi bat hiru atsuen partetik!!!

URNIETA


ZORIONAK



Abenduaren 14an 8 urte beteko dituzu Ane. Egunderragiro dezazula. Beti bezain alai jarraitu. Muxu handi bat.

ANDOAIN

ZORIONAK



Neguari ongi etorria, oporren hasiera eta zure 8. urtebetetzea! Ospatzeko gauza asko ditugu abenduaren 22an Maddi!

ANDOAIN


ZORIONAK



Hilaren 28an 5 urte beteko dituzu Xunek. Eskuak bete opari egoteko desiatzen, nola gainera! Vinyol-seraino ta buelta maite zaitugu.

ANDOAIN

ZORIONAK



Irati Rosco Muñozek 10 urte beteko ditugu abenduaren 11n. Askote zaitugu. Aita, ama, Andoni eta famili guztia!

URNIETA

Autobusak eskualdetik Bilboko manifestaziora

2018ko urtarrilaren 13an euskal presoek giza eskubideen alde Bilbon egingo den manifestaziora joateko autobusa antolatu du Urnietako Sarek, eta bertan parte hartuz, Bilboko kaleak jendez betetzera gonbita luzatzen die herritar guztiei.

Autobusaren irteera ordua eta lekua, urtarrilaren 11ko Aiurrin emango da jakitera. Bertaratu nahi dutenek au-

rrer izena eman behar dute ondoko leku eta bitartekoak erabiliz:

- Kantoi eta Xauxar tabernetan.
- sareurnieta@gmail.com helbidean.
- 685 034 997 telefono zenbakian.

ANDOAIN, IZEN EMATEA

- Lanbroa, Xaxi eta Irunberri tabernetan.

Areto futbol txapelketa

8. JARDUNALDIA

Ekhia 4-3 Gorostidi
Dad Kutxa 4-3 Akerbeltz
Ganbara 8-7 Academia London
Lanbroa 3 - 5 Academia
Keler 6-1 Pausoka
Powerade 3-9 Bar Txalaka
Ekaitz 9 - 8 Irunberri
Hogar Extremeño 4-2 Olajauna
Centro Extremeño 2-3 Keler

9. JARDUNALDIA

Asteburu honetan:
Olajauna-Powerade
Lar, 16. 14:30 Allurralde.
Bar Txalaka- Centro Extremeño
Lar, 16. 18:00 Arrate.
Academia- Ekhia
Lar, 16. 19:00 Arrate.
Pausoka- Ekaitz
Ig, 17. 09:00 Arrate.

Irunberri-Hogar Extremeño
Ig, 17. 09:15 Allurralde.
Academia London- Keler
Ig, 17. 10:00 Arrate.
Akerbeltz-Ganbara
Ig, 17. 11:00 Arrate.
Gorostidi-Dad Kutxa
Ig, 17. 12:00 Arrate.

Sailkapena: 1. Keler.

Euskal dantza ikastaroa helduentzat, Urkiren eskutik

"Urte Berri asmo Berri! Euskal-dantza ikasi eta disfrutatzeko aukera polita duzue; animatu eta izena eman!", horrela dio Urki dantza taldeko goiburuak. Hauxe da 2018rako egokitu duten eskaintza:

- Datak: Urtarrilak 16-maiatzak 15 (15 saio, denera).

- Tokia: Arrate frontoi azpiko lokalean.
- Prezioa: 90 euro.
- Astean behin (asteartea): 19:00 Lehen maila. 20:00 Maila aurreratu.
- Gutxieneko kopurua: Hamar lagun.
- Izen-ematea: 629 375 147.
- Epea: Abenduak 19.

SANTOMAS EGUNA NEGUKO LURRUNA!



U R N I E T A N

**Abenduaren
21^{ean},
ostegunarekin
Arratsaldeko
17:30ean
San Juan plazan**



Antolatzaile:



MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA
INISTORRA URNIETAKO EUSKALTZALEEN BILTZARRA



Babesle:



Laguntzaile:



KANTOI
taberna



- Txistorra, ardoa, sagardoa
- IX. Usadiozko sagardogileen lehiaketa
- VIII. Sagar-tarta lehiaketa eta dastaketa
- Gazten pisua asmatzea (Kantoi eta Xauxar tabernetan astebete aurretik hasita)
- Sagardo irabazlearen enkantea
- SASKIAREN ZOZKETA (20:30)
- Hiru zozketa txiki saskiaren zenbakiarekin

1 sari ezkutua 19:00
2 sari ezkutua 19:30
3 sari ezkutua 20:00

